

Unai BERTIZ

2004tik Inaki Perurenak zuen marka hobetu du → 57

Herriko bestak

Beintza-Labaien, Bera, Ziga, Gaztelu, Leitza eta Sunbilla

ETXALAR → 33

Altxata elkarateak 20. urteurrena ospatuko du

BAZTAN → 49

ESAITen mendi marxa Amaiurretik abiatuko da

URDAZUBI → 51

Burdinaren Egunaren 4. edizioa agorrilaren 6an

PILOTA → 56

Herriarteko txapelketa irabazi du Doneztebek



ARGAZKIA: ONDIKOL

Belateko tunela luzerako itxia

Tunelaren barnean kamioi batek su hartu eta kalte larriak eragin zituen

Nafarroako Gobernuak ez dute argitu zenbat denbora joanen den berriz ireki orduko. Suak 300 metro inguru estalki eta kable kiskali zituen, eta horrekin batera argiak, zainketa-kamerak eta komunikazio sistemak hondatu.

→ 48



ERREPORTAJEA → 3-5

Gaztetasuna ama izateari eskaintzea erabaki duten emakumeak

Batez beste, lehen seme-alaba izateko adina 30 urtekoa da Nafarroan. Baina, garai batean bezala, orain ere badira 20 urte inguruan ama direnak.

Joxeluis ALTZUGARAI 'Zikiro' | Futbol entrenatzailea



«Txartelik ez ikusteko sekretua arbitroaren lana errespetatzea da»

Zikiroren ezaugarri nagusia kiroltasuna da. 23 urteotan ez du txartelik ikusi.

→ 55

ZOKKETAK → 9



Txartela egiteko deitu **948 63 54 58** telefonora

Martiko[®]
Keztatuak

Martiko Pol. Zelaia, s/n
31780 Bera, Nafarroa.
Tel: 948 625156 Fax: 948 625157
www.martiko.com



BESTA ONAK PASA!



Ahatekietan adituak
eta arituak

Martiko Pol Zelaia, s/n
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625016 Fax: 948 625038
www.martiko.com



ZORIONAK!

VENTA
PEIO[®]

Venta Peio
Ibardingo gaina, Ibañeta.
Tel: 902 210 800
www.venta-peio.com



GIZARTEA → AMATASUNA

Gaztetasuna ama izateari eskaintzea erabaki duten emakumeak

Ama izaten direnen adina 31,46 urtekoa da banaz bertze, baina badira gaztetan izaten dutenak

Ama izaten diren emakumeen banaz bertzeko adina kasik 32 urtekoa zen Nafarroan urte honetako lehen hiruhilekoan. Lehen seme-alaba izateko banaz bertzeko adina 30 urtekoa da eta bortz emakumetik batek 35 urteak beteak dituenean izaten du. Ikasketak bukatzeari eta lanean hasteari garrantzi gehiago ematen zaio eta ama izatea beranduagorako uzten da. «Lehenik bizitza disfrutatu eta gero familia izan» diote. Baina, garai batean bezala, badira gaur egunean ere 20 urteko mugan ama izatea erabakitzen dutenak. Gaztetan seme-alabak izan eta hazteko indartsuagoak daudela erraten dute eta behin seme-alabak hazi eta nolabaiteko autonomia dutenean, beraien oraindik gazte izaten segitzen dutela.

Aitor AROTZENA

Ama izateko banaz bertzeko adina sekulan izan den altuena da gaur egun. Garai batean, ez hain aspaldi, 20 urte bete gabe umea izatea arrunta zen, baina gaur egun arraroa ez, baina berezia bederen bada. Egonkortasun ekonomiko eta emozionala segurtatzea, ikasketak bukatzea, gaztaroaz disfrutatzea, etxebizitza erosteko zailtasunak... nerabearoa 30 urteak arte luzatu dela dioenik ere bada. Gauza bat dela, bertzea dela, Nafa-

rroan, urteko lehen hiruhileketakoaren datuen arabera, ama izaten direnen banaz bertzeko adina 31,46 urtekoa da. Lehen umea izateko adina 30 urte ingurukoa zen. Baina gure inguruan seme-alabak gazterik izatea erabaki duten emakumeak ere badira, 20 urteko muga horretan, eta batzuen testigantzak bildu ditugu. Balantzan jarrita, seme-alabek kentzen ahal dituzten gauzak baino hagitzez pisu handiagoa omen du ematen dutenak.

38 URTEKO AMONAK, 60 URTEKO BIRRAMONA

Malen Perurena goizuetarraren eta bere familiaren kasua aipagarria da. Gaur egun 66 urte ditu eta 21 urte zituenean izan zuen Arantxa, bere lehen alaba. Geroztik beste bi alaba eta seme bakarra izan zituen. Orduan ama adin horretan izatea ez zen gaur bezain berezia, baina horrela suertatu zela aipatu digu, «orain erremedio eta aurrerapen handiak badira, baina orduan ez baitzen deus ere». Arantxak, 17

urterekin izan zuen Nagore Eskudero alaba. Beraz, 38 urterekin amonaz izan zuen Malen. Baina Nagorek ere 21 urte egin berritan izan zuen Lorena Uitz alaba. Beraz, 60 urterekin birramondu zuen Malen eta 38 urterekin amonaz izan zuen Arantxa. Badirudi belaualdiz belaualdi pasatu zaiela ama gazte izatearena, genetikoa balitz bezala. Baina Malen Perurenak garbi dauka gaur egun ez zuela halakorik eginen: «Orain ezkondu beharko bazu beranduago ezkon-

duko nintzen, edo gainerakoan batere ez» dio umoretsu. Lana eta etxebizitza dagoen moduan, «bi gurasoek lan egin behar dute gaur egun, etxebizitza garesti dago, gastu handiak daude eta zenbat eta seme-alaba gutxiago ekarri, hobel!», Goizuetako birramona gaztearen ustetan. Izan ere, «seme-alabak eskolan edo amonari utzi, lanera joan, berriz ere bildu, lan handia egin beharra dute gaurko gurasoek, eta ez daukate beste aterabiderik gainera!».



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Maialen Irigoien lesakarra, Unax eta Enaitz semeekin. 17 eta 19 urterekin izan zituen.

Nagore ESKUDERO:
**«AMA IZATEA DAGOEN
 ESPERIENZIARIK ONENA
 DA, BAINA LIBERTADEA
 KENTZEN DIZU»**

Nagore Eskudero, Malen Perurenaren bilobak garbi zeukan ama gazterik izan nahi zuela. «Betgi gustatu zait eta ama gazterik izan nahi nuen. Bikotearekin bizi nintzen dagoeneko eta etxean ere hori ikusia nuenez, urratsa eman genuen. Denborarekin, pazientziak joan egiten dira eta hobe lehenbailehen izatea». Ama izatea «dagoen esperientziarik onena» dela dio, «baina libertate guzia kentzen duela egia da, ezin zara gauzez festara atera, umeak lotu egiten du hasieran. Orain alabak 6 urte ditu eta ongi, hasiak gara errekuperatzen, berriz ere gaztetako martxan!». Orduan lanean ari zen Nagore eta zazpi hilabeteko haurdun zegoela lana utzi egin zuen. Alabak 3 urte egin eta eskolan hasi zenean, gizarte zerbitzuen bidez berriz ere lanean hasi zen udaletxearentzako eta orain, irailean, erizaintza laguntzailerik ikasketekin hasi nahi

du Hernanin. Beraz, «garbi dago ikasketak eta lana berriz ere hartzen ahal direla, oraindik gaztea naiz-eta». Bakoitza nolakoa den ere zerikusia du honetan. Nagorek dioenez, «ni beti responsablea izan naiz, familian bizi izan dudana egoerak tiki-titikitatik helduago izatera bultzatu ninduen eta orain ere arduratsua naiz».

Maialen IRIGOIEN:
**«BERAIEK GAZTEAK
 DIRENEAN, NI ERE
 ORAINDIK GAZTEA
 IZANEN NAIZ»**

Maialen Irigoien le-sakarrak 17 urte zitue-nean izan zuen Unax lehen semea eta 19rekin Enaitz, bigarrena. Berak ere betidanik garbi zuen ama gazterik izan nahi zuela, «baina beharbada ez nuen uste hainen goiz etorriko zirenik» onartu du. Lesakarraren ustez, «gorputza ez dago berdin 20 urtetan edo 35 urtetan». Gainera, «hemendik urte batzuetara beraiek gazteak direnean ni ere gazte izatea polita izanen da, elkarren arteko harremana hobea izanen dela espero dut».



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ainhoa Etxebeste sunbildarra, Janire, Ibai eta June seme-alabekin.

Gaztetan ere pazientzia gehiago izaten dela uste du, «nahiz eta akautu ere egiten zaigun». Bere esperientzia hagit positiboa izan dela aipatu digu Maialene, «bai haurdunaldiak, bai erditzeak, biak hagit onak izan dira, eta gero laguntza handia izan dut eta ongi moldatu naiz». Alde txarrari dagokionez, «badirela gauza aunitz berandu-gorako utzi behar dituzunak, pendiente gelditzen direnak, baina se-

mee bertz gauza batzuk ematen dizkizute, hutsune horiek ederki betetzen dituztenak». Maialenen kasuan, Iruñera modulu bat ikas-tera joatekotan zela izan zuen lehen semea eta ikasketak utzi behar izan zituen, «beranduago berriz ere hasteko in-tentzioarekin. Orain modulu bat egiten ari naiz etxetik, semeek uzten dizkidaten denbora-tarteak probestuz. Lehen-biziko semea bakarrik nuenean uda batean la-

nean ere aritu nintzen. Umeak hain gazterik izanda, erraten ahal da oraindik bizi guzia daukadala ikasteko edo lan egiteko». Bikotekideak lan finkoa zuen eta etxebizitza ere bazuten, beraz alde horretatik «nahiko seguru» hartu zutela erabakia aipatu digu, «guk ez genuen problemarik izan alde horretatik, baina gaur egun egoera ez dago hain ongi eta horregatik gero eta beranduago izaten dira umeak».



ORAIN BERANDUAGO

«Orain ezkondu behar banu beranduago eginen nintzateke, edo gainerakoan batere ez»

Malen PERURENA
Goizueta, 66 urte



PAZIENTZIA

«Denborarekin pazientziak joan egiten dira eta hobe da seme-alabak lehenbailehen izatea»

Nagore ESKUDERO
Goizueta, 27 urte



KENDU ETA EMAN

«Gauza aunitz gerorako utzi behar dituzu, baina umeek bertze gauza batzuk ematen dizkizute»

Maialen IRIGOIEN
Lesaka, 20 urte



UMEEKIN ETXEAN

«Nere adinekoak bere martxan segitzen zuten eta ni etxean, baina ez zitzaidan gogorra egin»

Ainhoa ETXEBESTE
Sunbilla, xx urte



JOLASAK ELKARREKIN

«Guratso gazteok gehiago jolasten dugu umeekin, eta hori haurrek aunitz eskertzen dute»

Bakene KARRIKIRI
Elizondo, 30 urte

AMEN ADINA (*)		
Adina	Jaiokak	1.umea
<15	1	1
15	2	2
16	9	9
17	20	18
18	47	38
19	67	53
20	73	60
21	100	71
22	89	57
23	101	70
24	113	58
25	154	89
26	164	99
27	265	157
28	299	184
29	373	249
30	476	303
31	573	345
32	577	310
33	646	297
34	602	253
35	533	193
36	428	146
37	355	102
38	273	91
39	186	59
40	132	42
41	92	26
42	41	14
43	24	8
44	18	9
45	7	0
46	1	0
47	1	0
48	2	1
49	0	0
>50	0	0
Denera	6.844	3.412

(*) Nafarroan 2009an
Iturria: INE

Ainhoa ETXEBESTE:
«ASKI DA UMEAREN
IRRIFAR BAT SOMATZEA
EGUNEKO TONTAKERIA
GUZTIAK AHAZTEKO»

Ainhoa Etxebeste sunbildarrak 21 urterekin izan zuen Janire berre lehen alaba. Ondotik, 24 zituenean etorri zen Ibai semea eta 25 zituenean June alaba. «Garbi nuen gazterik izan nahi nituela seme-alabak eta Janire jai baino lehen bertze bat galdu ere egin nuen» aipatu digu. Ama gazte izateko erabakiari ez dio inolako alde txarrik ikusten, baina «inon erakusten ez duten lan bakarra da ama izatea, bakoitzak berea egin behar du, baina adinak ez du deus ikustekorik, berdin da 20 urtetan edo 40 urtetan». Alde onei dagokienez, «gaztetan pazientzia gehiago eta beldur guttiago izaten dugu» azpimarratu di-



ARGAZKIA: FELIX LOIARTE

Lau belaunaldi Goizuetan: Arantxa amona, Malen birramona eta Lorena Nagore amarekin.



ARGAZKIA: TOTU ITURZAETA

Bakene Kari-kiri elizondarra, Angel, Xuban eta Markel semeekin eta Iñaki senarrarekin.

gu, baita «ama gaztea bazara, aitaxi-amatxiak ere gazteak direla».

Gaur egun umeak beranduago izatea ikasketekin eta lanaren egoerarekin zerikusia duela uste du Ainhoak. «Nik lana utzi nuen, bagenekien diru iturri hori ez genuela, guk hori erabaki genuen, baina bakoitzak ikusi behar du zer egin nahi duen edo zer egiten ahal duen. Momentu haietan ez genuen oporrik izandu, baina bertze alternati-

ba batzuk bilatzen dituzu». Bizitza soziala erraten zaion hori zerbait galdu zuela onartzen du, «nere adinekoak bere martxan segitzen zuten eta nik etxean gelditu behar nuen, baina ez zitzaidan gogorra egin».

Orain, berriz, bera oraindik gazte izanik, seme-alabak haziak ditu, eta lan mundura bueltatu da, «taxiarekin lanean eta trikitixa klaseak ere ematen hasina Txantrean. Eta orain, nik seme-alabak ha-

ziak eta koadrillakoak ikusten ditut ume jai berriekin». Beraz, garbi dauka, «berriz ere egin behar banu, gauza bera eginen nuke. Esperientzia hagitz polita da eta azkenean, paratzen duzu balantzan eta irabazten ateratzen zara, satisfakzio handiak hartzen dituzu. Egia da tikiak direnean libertate pixko bat galtzen duzula, baina aski da umearen irrifarre bat somatzea egun guztiko tontakeriak ahazteko».

Bakene KARRIKIRI:
«MOMENTU EGOKIAREN
ESPEROAN BAZAUDE, EZ
DUZU INOIZ UMERIK
IZANEN»

23 urte egin berritan izan zuen Bakene Kari-kiri elizondarrak Angel lehen semea. Gero, bertze bi etorri ziren, Xuban eta Markel. Ama gaztea izatea «hala suertatu zela» erran digu, «momentu txarrean, gainera, baina aurre egin behar zaio». Izan ere, ostatu batean lanean ari zen autonomo bezala, «eta lanean segitu nuen berdin-berdin. Eskerrak nere guratsok eta senarrarenak eskua bota zitugela». Bigarrena sortu zelarik lana utzi zuen eta etxean gelditu zen. «Hirugarrena sortu aitzin berriz ere lan egin nuen Zahar Etxean, hirugarrenarekin utzi nuen eta orai berriz lanean hastekotan nago, gogoz».

Ama gazte izatearen alde ona «pazientzia gehiago» izatea dela uste du, eta txarrena «lotzen datzula pila bat, gauza pila bateri uko egin behar diozu, oporrei, beste... Bi lehenbizikoak nahiko segidan izatearekin aunitz moztu genuen horrekin». Baina bertze aldetik, «guratsok gazteak izatearekin gehiago jostatzen dugu beraiekin, berdin zaigu iraulka ibiltzea parkean, eta hori haurrek pila bat eskertzen dute».

Egonkortasunari begiratuz gero, behin ere ez litzakeela umeak izateko garai ona izanen erran digu: «Ikasle zarelarik ikasten ari zarela, lanean ari zarela, langabezian bazaude lanik ez duzulako, 20 urterekin gazteegi, 40 urterekin beranduegi, beti bada problema... Momentua bilatzen ari bazara, behin ere ez dago momentu egokirik».



Nire txanda
Fernando ANBUSTEGI

Zibil-izazioa

Noiz zibilizatuko da jendartea? Noizko erabateko zibilizazioa? Benetan zibilizatu nahi al du jendarteak? Galdera aunitz, erantzunak falta, gehienetan bezala. Uda hasi berri dugu. Pasatu dira San Juan, San Pedro, San Fermin... etorriko dira Santiago, San Bartolome, San Felipe... eta agian San Petersburgo, nork daki. Bitxia da, nola jendartea gero eta gutiago oroitzen den sailduz, baino «gero eta gehiago» ospatzen dituen beren egunak, «inkonzienteki». Erlijioaz paso egiten du jendarteak, hein batean, baina erlijioaren menpeko bestak baliatzen ditu, gustora gainera. Koherentzia falta zaigu? Kontraeranean bizi gara? Ignorantzia? Ezkontza zibilak jada ohikoak dira, hileta zibilak hasi dira orain... Noizko egutegi zibila? noizko besta zibila? Hor hausnarketarako gaia. Ni orain, igandea denez, deskantsatzera noa.

«Erlijioaz paso egiten du jendarteak baina erlijioaren menpeko bestak baliatzen ditu»

Ezpala

Aitor AROTZENA

Ebakuazio plana

Lesakako Sanferminetarako ebakuazio plana prestatu behar omen da heldu den urterako. Beharrezkoa. Karrikan aditutako bertze proposamenak: kanpinera etortzen direnei zerbait kobratzea, garbiketa gastuetan laguntzeko. Edo haurren eguna asteburuarekin suertatzen bada, dataz aldatzea, umeak ez daitezzen piza, kristal, plastiko eta bertze zabor artean izututa hankapunttan ibili.

Nabarmentzekoak



Juana HUALDE ZABALETA
Oronoz-Mugairiko alkatea

Herriko alkate izanen da 2012ko abendura arte, orduan berriuko baitira berriz ere karguak. Sei hilabetez egon dira alkaterik gabe Oronozen eta Bittor Elizagoienen lekua hartuko du.



Unai BERTIZ
Sunbillako harrijasotzailea

Nafarroako txapelketa laugarren urtez segidan irabazteaz gain, 2004. urtetik Iñaki Perurenak zeukan marka ere hobetu zuen Iruñean, guztira 6.562 kilo eta erdi altxatuz.



Xanta SOUZA
Lesakako kirolaria

Jatorri brasildarra duen lesakarrak lehenbiziko aldiz irabazi du Nafarroako emakumezkoen txinga eramate txapelketa. Uztailaren 11n Iruñeko finalean 26 plaza egin zituen.

Atzera begira → 2002.07.18 / TTIPI-TTAPA 330. zbk



Pedro Urrutia saldiastarra ardi ile eta larruarekin tratuan

Hainbat urtetan Saldiasoko alkate izan den Pedro Urrutia ardi ile eta larruarekin tratuan aritzeagatik ere ezagun izan da. «Subentzioak kentzen dituztenean aunitz jautsiko dira ardiak» zioen duela 9 urteko TTIPI-TTAPAKO elkarrizketaren izenburuak. Koskorrok aipatu zigunez, «etxean ile-zako asko ditut eta 8.000-10.000 kilo biltzean saldu egiten ditut. Alfonbrak egiteko erabiltzen dira eta hemengo ardi zuri hau oso ona da». 24 urterekin hasi omen zen Urrutia langintza honetan, «lehenik asto batekin eta gero mandoarekin. 25 urte pasatu nituen horrela, eta gero, kotxea erosi nuen».



Argitaratzailea Titi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduetzeta, 12 • 31760 ETXALAR
Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxe (+34) 948 63 54 57 • info@titi-ttapa.net

Zuzendaria Aitor Arotzena Erredaktore burua Gurutze Pikabea Publizitatea Usoa Vicente, Kulturkari SLU Berriemaileak Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Arantxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Iruñe eta Itsaso Elizagoien, Maite Oteiza, Maider Petrirena, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria, Iñaki Telletxea, Joanes Garcia...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea Kudeatzailea Joxemanuel Irigoien Administrazioa Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • Tirada 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortziritetako Euskara Mankomunitatea, Malerreko Zerbitzu Mankomunitatea

2011ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria37€	Europa55€	Baztan, Urdazubi eta Malerreka31€
Ipar Euskal Herria55€	Amerika eta Australia123€	Leitza15€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

‘Walkiria’ eta ‘Ogro’

Mikel RODRIGUEZ LANDA

Uztailaren 20 honetan bete dira 67 urte ‘Walkiria operazioa’ egin zenetik. Adolf Hitler Alemaniako diktadorearen aurkako konspirazioa izan zen operazio hori, hura hil eta erregimen naziaren aurkako estatu kolpea ematea helburu zuena. Armadako hainbat goi ofizialek antolatutuzten konspirazioa, Alemaniako nobleziako kideak denak. Hitler lehergailu bidez hiltzeko arduraduna Claus von Stauffenberg koronela izan zen, Bavierako goi familia bateko kidea, eta noble petoek bezala, abizenaren aitzinetik dozena erdi izen zituen. Ekintza gaizki atera zitzaion, ordea. Hitlerrek leherketari biziraun zion, eta Von Stauffenberg atentatua egin eta hurrengo gauerdian hil zuten. Gaur egun Alemaniako estamentu ofizialistek askatasunaren aldeko borrokalaritzat dute koronela, eta Hollywoodek ere pelikula takillero bat egin zion Tom Cruise haren paperean paratuz. Europako diktadura baten aurka egindako azken magnizidioa ‘Ogro operazioa’ izan zen, ETAk Francoren gobernuko presidente Luis Carrero Blancoren aurka egindako eraso. Euskal Herrian ez ezik, Espainian diktaduraren aurka zeudenek pozez hartu zuten presidentearen hilketak, diktadurarekin jarraitzeko oinordekoa baitzen. Gaur egun, baina, Espainia Alemania bezain ‘demokratikoa’ den arren, Von Stauffenbergek eta Carrero hil zuten ETako militanteek ez dute tratatara berdina. Erregimen faszista bateko buruzagi bat hil zuten arren, Espainiako ikuspegi ofizialek ETako militante haiek terroristak dira, eta Carrero, berriz, terrorismoaren biktima. Carrero gerra zibilean eta diktaduran egindakoak barikatzen dizkiote, baina hura hil zuten militanteak omentzeagatik kartzela zigorra paratzen dute gaur egun, ‘terrorismoa goratzea’ baita. Von Stauffenberg heroizat hartzea ere zalantzarria izan daiteke, bertzeak bertze, kasualitatez, Hitler gainbeheran zenean erabaki zutelako haren aurka jotzea, aliatuekin akordioa egin eta betiko nobleziak Alemanian boterea hartzeko. Baina ‘Walkiriak’ eta ‘Ogrok’ erakusten dute Alemania eta Espainia zein ezberdin atera ziren diktaduratik: diktadorea hiltzen saiatzea heroi izatea da Alemanian, baina faszismoaren aurkako borrokalaria oroitzea terrorismoaren gorazarre egitea da Espainian.

«Zein ezberdin atera diren diktaduratik: diktadorea hiltzen saiatzea heroi izatea da Alemanian, baina faszismoaren aurkako borrokalaria oroitzea terrorismoaren gorazarre egitea da Espainian»

Harrizko herriaren irrizko orrua

Joseba URKIOLA

S an Juan suak indarra hartzearekin batera, kiskaldutzat eman daitezke ikasturteko poz eta tristura asko. Egutegia begiratuta urtea abenduan amaitu eta urtarrilean hasten da. Baina asko eta askoren eguneroko funtzionaltasunak, beste panorama bat diseinatzen du. Irailean ekiten diote eta ekainean bukatu. Uztailea eta abuztua, galdutako denbora berreskuratzeko eta energia berritzatzeko atsedean unetzat har daitezke. Udarari ere sua piztu baino ordu batzuk lehenago egiten zaio oles. Pasa berri den udaberrian herrian hazi diren lore askok irria izan dute euren sustraietako eduki. Notizia pozgarri askok ikusi dute argia. Triste eta krudelek ere izan dute tarte baina horiek beste baterako utziko ditugu. Ezin ukatu Leitza eta kirola uztarri bereko bikoak direla, dema saio oparoak osatutakoak. Irrizko orru ugari eginak azken urteetan. Baina kirola ez da herria ezagun egiten duen gai bakarra. Ekintzaz haratago joan diren kirolariek ere sortu dute atentzioa eta zer esana. Horren adibide argia da Iñaki Perurena. Peru Harri proiektuarekin Port Abentura pertsonalizatua osatu du. Barneko sentimenduak eta burutzioak hari hartuta, harrizko soineko dotore ugari josi ditu eta denak ikusgai daude Gorriteneko pasarelan. Baina ez da horregatik bakarrik izan Iñaki azken aldiaren notizia. Ekaina hasieran Irujo saria eman zioten. Euskarren alde eginiko lana saritu nahi izan du elkargoak. Lizarrako tranpaldo gainean, hitzezko altxaldi emankorra egiten ikusi genuen. Urduri baina esaten ari zenarekin seguru. (...) Horra aldaketa, orain kirolaria ez da kirola egiteagatik bakarrik notizia bestelako ekintzengatik baizik. Baina eginak berak ere sortu du interesa eta harridura. Mikel Nieve ezin ahaztu. Kurtso hasieran Cotobello poz malutez mozorroto zuen eta maiatzaren 22an, ikusi eta sinistu. Hauteskunde Egunari beste nortasun eta izaera bat eman zion. Arratseko hiruetatik hasi eta hiru bat orduan, Euskal Herri luze zabalean den kirol bozka bat eta bakarra zen. Txuriak ez ziren existitzen eta abstentzioak ez zeukan zentzurik. Hortzak estutu eta berriro ere txaloak jotzeko garaia zen, sufritzen gozatzekoa. Gardecciako irudiek asko txirindulari bihurtu ginen. Nahi eta ezina nagusi. Contador sufritzen, Garzelli S-ak egiten eta Mikel jende uholdea emankorraren artean bakar-bakarrik. Egun hartan, pedalek ere negar egin zuten sufrimenduekin. Ez zela amaituko ematen zuen. 7 ordu eta 27 minutu behar izan zituen 229 kilometro osatzeko. Irrizko orru sakona egin zuen eskubiko besoa altxatuaz amaieran. Nork esan zuen ezin daitezkeela ametsak egia bihurtu. Haratx, historiako etaparik gaitzenetakoa Nieverentzat. Maiatzaren 23ko La Gazzeta dello Sporteko azaleko protagonista nagusi izan zen. Ikusi eta sinistu. Honela segituz gero Herri kirolak irudikatzen dituen biribilgunean harrizko bizikleta bat ezarri beharko dute. Txirindularitza Herri kirol izan ez arren, herri guztia bultzatzen baitu kirola ikustera eta sufrimenduekin gozatzera. Cotobello lehenengo eta Gardeccia Val di Fassa ondoren. Zein izango da hurrengo? Has dadila hargina bozetoa egiten.

Irakurleak mintzo

Ezer ez da betiko

Ainara MAIA URROZ

Zerua goibel eguna argitzen hasi orduko, eta karririk bustirik Irunen. Nik irribarre egin diot biharamun euritsu honi, eta oilo-ipurdia jarri zait titibiliti eta danbor-hotsekin San Martzial bezpera honetan. Gainera, adiskide zahar baten posta elektronikoa jaso dut, aspaldiko partez. Ahoa minbera eta bihotz minez pentsatu dut ezer ez dela betiko.

Heriotzak eraman ditu asko maite ditudan pertsonak, eta distantziak urrunarazi bihotzeko lagun min batzuk, denbora eta espazioa tartekatzen da, bai eta pertsona berriak ere, eta bakkarik nagoela oroitu naiz.

Ezer ez da betiko, ez, mundu honetan, eta Sarriandian ohartarazi zidan bai bere olerki batean ez dagoela haririk, ez dagoela loturirik. Ezer ez da betiko, baina hala ere ametsetan segitzen dut ene bakardadean gehiegi itxaroten eta eskatzen badut ere, eta noiz-bait ene maitearekin batera joango naizela eta familia bat osatuko dudala amesten dut. Ezinezkoak posible egin al daitezke?

Irunen bi alardeak maite ditut, bietan ditudalako lagunak eta maiteak, eta horregatik, noiz-bait denborak eta espazioak elkartuko dute jaietan Bidasoaldeko herri berezi hau, ezer ez baita betiko eta gehiegi itxaroten eta eskatzen badugu ere, ametsetan segituko dugu eta ezinezko dirudiena posible egingo



Bota bertsoa
Aitor ELEXPURU (Berako bertso eskola) • Doinua: Motibo bat nigana

«Herrira» goaz oporretan

Opor garaia da eta bagoaz "herrira" min guztiak sendatzen zaizkigun tokira. Mendi bueltaxka edo musean partida, hemen egunak lasai, goxo joaten dira. destino turistikoa berezia tira.

Bizitza aldatzen zaigu egia esanda: lanari alferkeriak hartzen dio txanda. Haurrak piszinan eta norbera etzanda, lagun artean kaña batzuek edanda, "herrian" disfrutatzen dugula bistan da!

dugu. Eskua eskaini omen zidan bihotzeko lagunak, eta nik beso osoa hartu nahi omen nion. Horregatik eten zengure arteko ustezko hari hori, nik gehiago nahi omen nuelako, eta orain konformatzen ikasi dut bizitzan. Uda honetako neure ametsa adiskide zaharrak berreskuratzea da, eta haiekin barre egi-

tea, nahiz eta jakin ezer ez dela betiko, ezta Irungo San Martzial jaietako bi alardeak ere.

Jai bat soilik da, baina oroitarazi beharko genuke alarde hauekin ez dugula euskaldunok benetan ezer ospatzekorik. Izan ere, 1512an Gaztelako erregeak Nafarroako Erreina konkistatu baitzuen indarrez, eta

bortxaz frantsesekin batera, nafarrak edo euskaldunak ere desterratu baitzuten. Munduko historiografiak ezkutatu nahi izan diguna argitara ateratzeko tenorea dugu, eta heldu den urtean bi alarde gabe, bakarra eta euskalduna izan dadila. Ezer ez da betiko, eta goza dezagun biharko eguzki goxo!

IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta: info@ttipi.net
Posta: **Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR**
Tel.: **948 63 54 58** Faxa: **948 63 54 57**



- » Erkozetan oiltenta eta kaxonketa
- » Etxe eta arrantza garaiak
- » Etxe balmeneren tratamenduak

armadenda

andueza

Paotxa Eraikina • Gorostlaga, z/g • Anaka Industrialdea
T. 943 66 72 67 - F. 943 66 71 91 • 20305 IRUN
c.andueza@euskalnet.net

ttiipi txartela

ttiipi txartela

Ahura Mendegia
KIDIZENAREN
KONTAKU
948 63 54 58

DESKONTUAK | ZOZKETAK
ALDIZKARIA MUSUTRUK

Eskatu zurea 948 63 54 58 telefonoan

TTIPI TXARTELArekin
BETI IRABAZTEN DA!

546. ALEKO IRABAZLEAK

* ELKAR 2 LIBURU

Nikse OREA | Araceli MARTIN | Bete
Eskatu zurea (ok, egon ez duzunak) | Xabier SUSPERREGI | Lesaka

* AQUARIUM 2 SARRERA

Juan SEIN | Euzko

* LANKU DVDa

Fidel BERTIZ | Belinda Labaien

* PIRRI TX; PORROT X ETA MARIMOTOTS CDa

Alicia ARRAZTOA | Iratxe

* ONDDO TA PUNTO KAMISETA

Loizdas SANZ | Sima

* IBAIZABAL 2 LIBURU

Sara OREA | Barbara LUKANBIC | Aiantza

Boix gora | Iratxe ZOZAIA | Urreola



BAZEN BEHIN... BIZITZA

Luditoys argitaletxea
www.luditoys.com



2 LIBURU

Erein argitaletxea
www.erein.com

TTIPI SASKIA



oninart

KAMISETA BAT

Oninart denda
www.oninart.com



PRODUKTUAK:
EREIN ARGITALETXEA
IGELA ARGITALETXEA
TXAPELA BURLIAN



MARTIKO LOTEA

Martiko

www.martiko.com

DESKONTUAK

KATEA-BIKE



55 konpainietan

MIMUR

10.000 artikuluetan

KatiEnk

LEONORRA

410. 30000 goraiko gutuzan



Hortako Zerezuak

100. zaku eta katuari perretsan

POTTOKI

10.000 artikuluetan

GIZARTEA

ESKUALDEA → BAZTAN, BORTZIRIAK, MALERREKA ETA LEITZALDEA

6,5 milioi hartuko dituzte herriek Gobernuko transferentzietatik

Udal eta kontzejuek duten biztanle eta azaleraren arabera hartzen dituzte diruak

TTIPI-TTAPA

Eskualdeko 25 herriek eta 3 kontzejuek 6,5 milioi euro jasoko dituzte Nafarroako Gobernutik 2011n. Ohiko transferentzien dirua jasoko dute, herriaren biztanle kopuruaren eta azaleraren arabera banatu ondotik.

Bertizaranan bitransferentzia izanen dituzte, bat udalerrri bezala (111.584 euro) eta bertzea NARBARTE, LEGASA eta OIEREGIKO kontzejuek bakoitzak bere alde-tik hartuko dutena.

Transferentzi hauek izaten dira toki entitatek Foru Ogasunetik hartzen duten diru partidarrik garrantzitsuenak. Banaketa irizpideak zuzentze aldera, herrietatik maiz eskatu izan da biztanle kopurua eta aza-

Herria	Diru kopurua
ARANO	35.450,00 €
ARANTZA	197.493,20 €
ARESO	84.912,45 €
BAZTAN	2.099.043,24 €
BEINTZA-LABAIEN	65-457,81 €
BERA	790.593,96 €
BERTIZARANA	111.584,94 €
DONAMARIA	105.591,76 €
DONEZTEBE	369.090,65 €
ELGORRIAGA	64.340,12 €
ERATSUN	33.182,97 €
ETXALAR	183.442,24 €
EZKURRA	43.805,98 €
GOIZUETA	174.894,80 €
IGANTZI	133.781,66 €
ITUREN	108.717,69 €
LEITZA	660.102,02 €
LESAKA	668.313,56 €
OIZ	29.844,69 €
SALDIAS	28.647,99 €
SUNBILLA	170.466,15 €
URDAZUBI	88.645,51 €
URROZ	36.722,32 €
ZUBIETA	72.240,63 €
ZUGARRAMURDI	64.593,42 €
LEGASA	26.650,40 €
NARBARTE	35.041,73 €
OIEREGI	12.419,58 €
Denetara	6.495.071,47 €

lera kontuan hartu bide-nabar, herri bakoitzaren ezaugarriak ere kontuan

hartu beharko zirela, demografiaren banaketa konparaziora.

Ikastetxeetako zuzendarien izendapenak

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentuak izendatu berri ditu hurrengo lau urteetarako eskualdeko 11 ikastetxe publikotako zuzendari izanen direnak. Uztailaren 1az geroztik daude zuzendari postuetan:

- Arantza: Aitor Elexpuru.
- Beintza-Labaien: M^a Teresa Altxu.
- Doneztebeko San Miguel: Sara Maylin.
- Elizondoko San Fco. Javier: M^a Isabel Ibarrola.
- Gartzain: Angel Amorebieta.
- Igantzi: Jose Antonio Ortega.
- Ituren: Arantza Diez.
- Legasa: Karlos Barco.
- Lekaroz-Elizondo, BHL: Agustin Olabe.
- Sunbilla: M^a Isabel Agirrebengoa.
- Urdazubi-Zugarramurdi: Rosa M^a Aleman.

MANKOMUNITATEAK
Hiri hondakinen egutegiak Kanarietara joateko zenbaki saridunak ditu

TTIPI-TTAPA

Birziklapenaren inguruko hainbat aholku emanaz eta inguruko paisaiak bilduz Baztan, Bortziriak eta Malerrekana, Hiri-Hondakinen Mankomunitate edo udalen eskutik urte hasieran banatu ziren egutegiak zeramaten zenbakien zozketa egin zen ekainaren 30ean Donezteben.

Hain zuzen, irailean bi lagunentzako Kanariar Uharteetan aste bateko egonaldia zozketa egin zen. Hiru zenbaki atera dira: **9026**; **5927** eta **9447**. Saritua zenbaki bakarra da, **9026**a, eta lehendabiziko zenbaki hori agertzen ez bada, bigarrenak eramanen du saria, **5927**ak eta bertzela, hirugarrenak, **9447**ak. Hiru kasuetan, uztailaren 31 baino lehen deitu beharko da Bortziriako Hiri-Hondakinen Mankomunitateko 948 635254 telefonora.

Ekolozik igotzea... ez da utopial
platalbarnak
igogailu berriak
auki berriak...

Behetik



Aforoa: Isaki, 14 • T: 943 368 781 • 671 073 888
www.behetik.com

ARTEKARI TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariek eta merdi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta alorpenak
- Eberritasun eta jubilazio espedientiak
- Bidegaitasun planak eta sursurkuntak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050
BURRATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

UDALA → BATZORDEBURUAK ERE ERABAKIAK

Udal batzarrak hilerro hirugarren ortzegunetan eginen dira

Bertze erakundetarako udal ordezkariak ere hautatu ziren

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 5ean egin zuen Berako Udalak batzordeak osatzeko bilera eta udal batzarrak hila beteko hirugarren ortzegunetan eginen direla ere erabaki zen.

Batzordeetako buruak hauek izanen dira:

Euskara: Garazi Taberna. Garapena: Jon Abril. Gizarte gaiak: Jaione Andueza. Hirigintza: Marisol Taberna. Kirolak: Fernando Berasain. Kultura: Andrea Gouraud. Mendia eta Ingurumena: Fernando Berasain eta Jose Manuel Portu. Ogasuna eta Langilegoa: Marisol Taberna.

Batzordeen osaketaz gain udal eskumeneko kide anitzeko organoetara joan behar duten udal ordezkariak ere izendatu zituzten.

Hiri Hondakinen Mankomunitatea: Fernando Berasain, Jose Manuel Portu. Euskara Mankomunitatea: Jon Abril eta

Garazi Taberna. Oinarriko Gizarte Zerbitzuen mankomunitatea: Jaione Andueza, Andrea Gouraud. UEMA: Marisol Taberna, Jon Abril, Garazi Taberna. Zonaldeko osasun kontseilua: Jaione Andueza. Musika eskola: Jon Abril, Jose Mari Telletxea, Isidora Agirre, Juan Losa. Ricardo Baroja ikastetxe publikoa: Fernando Berasain. Toki Ona institutua: Marisol Taberna. Muxiku haur eskola: Jaione Andueza. Labiaga Ikastola: Andrea Gouraud. Jesusen Bihotza ikastetxea: Marisol Taberna. Cederna-Garalur: Jon Abril. Borondatezko suhiltzaileak: Marisol Taberna.

ESAITen ibilaldiari ongi etorri

ESAIT-ek antolatzen duen Euskal Selektzioaren Aldeko mendi marxa, abuztuaren 1ean, eguerdi aldera Beratik pasako da. Ibardineko karreteratik sartu eta Agerra aldetik aterako da. Berako kirol taldeek ongi etorri gisako zerbitu egin nahi diote ibilaldiari eta dantzarien agurra, gazteen herri kirol ekitaldi xumeren bat eta



UTZITAKO ARGAZKIA

Fernanda Gainza 'Mas por ti' Klubeko zozketan saritua

«Mas por ti» klubak Nafarroako bazkide guztien artean hainbat zozketa egin ditu. 80 sari tikiagoen artean, bi lagunendako astebeteko bi bidai ere zozketatu zituen eta horietako bat Fernanda Gainza Aranburu beratarrari (argazkiaren eskuinean) egokitu zitzaion, ekainaren 6tik 20ra egindako promozioan erosketak Telletxea janaridendan egin ondotik. Kanariar irletara joan edo Mediterraneoan barna kruzeroa egin aukeratu beharko du orain.

pintxo batzuk eskaintzeko asmoa dute. Ondoren txistulariekin Ageraraino lagunduko dute martxa. Ongi etorri ekitaldia mundu guztiarentzat zabalik dago eta ahalik eta giro hobereana sortu nahi dute, «euskal selektzioaren aldeko aldarrikapenari ahalik eta indargehien ematearren».

Kontzentrazioa Funveran

Funverako langileek kontzentrazioa egin zuten uztailaren 14an lan-tegiaren aitzinean. LAB sindikatuak egin zuen deialdia, enpresa ez dela lan akordioko bigarren proposamena betetzen ari salatuz. Akordio horretan 2010 eta 2013 urteen bitartean, kontratazio berriak egin behar izatekotan lan erregulazio espedientean kaleratu-

tako langileak lehenetsiko zirela adostu zen.

LABek dioenez enpresaren egoerak hobera egin du, lana sartzen ari da eta enpresak kontratazioak egin ditu. Bartzuk lan erregulazio espedientean kaleratutako langileak izan dira, baina berriki kontratatu diren bi langile ez. Erabaki horren atzean arrazoi ideologikoak daudela uste du LABek. «Enpresak pertsona konkretu bat ez du kontratatu nahi, langile borrokalaria izan delako, LABeko ordezkaria izan delako eta Bilduko hautagaia azken udal hauteskundeetan».

LABek argi utzi du ez duela diskriminaziorik onartuko kaleratutako lankideekin eta horren bukaera komite guztia- ren betebeharra dela er- rran dute.

Balkoi lehiaketa

Larun-haizpe merkatari elkarteak antolatuta laugarren balkoi lehiaketa egiten ari da uztailean. Uztailaren 29an, 20:30ean emanen zaio saria balkoi politenari.

Bertzalde, Larun-haizpeko dendariak txartelak banatuko dituzte bezeroen artean uztailearen 23 arte eta lau lote eder zozketatuko ditu. Lote bakoitza 150 euro ingurukoa izanen da eta sarituak uztailaren 29an jakitera emanen dira.

Dantza jaialdia

Bidasoaldeko Gazteen Folklore jaialdiaren barrenean, dantza saioa izanen da uztailaren 22an, ortziral arratseko 20:00etatik aitzinera Herriko Etxeko plazan. Irlanda eta Indonesiako taldeak ariko dira.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Altabe, 17 - BERA

F. LANCHAS
Akupuntura eta hermatizalria
Parket eta parket flutatzalria
Jartze
Mota gutxietaiko zolak
Tel: 948 630 755 - M: 607 406 781

XITALLI
KANTU + BOKU
... (The text is partially obscured)

LESAKA

UDALA → EZ DU PROIEKTUA GIBELERATZEA NAHI

Kultur Etxeari buruzko erabakiak lehenbailehen hartzea eskatu du EAJ-PNVk

Espainiako Gobernuak emandako 3,6 milioi euroko laguntza ere gal daitekeela adierazi du

Aitor AROTZENA

EAJ-PNVko udal taldeak udal batzarrean mozio bat aurkeztu zuen kultur etxea eta liburutegiaren proiektuaren inguruko erabakiak geldirik daudelako. Jose Luis Etxegarai zinegotziak zioenez uztailaren 1ean egindako bileran udalak eta proiektuaren egileek aldaketa batzuk proposatu zituzten, «2003ko aurkezpenarekin antzekotasun gehiegi dutenak». Etxegarai oroitari du bilera horretan egin ziren proposamen gehienak «aztertuak, eztabaidatuak eta atzera botatakoak» izan direla. Bertzeak bertze, fatxadako materiala, berogailu mota edo biltzen diren harmailak jartzearen proposamenak. Hori dela eta, EAJtik

adierazi nahi dute proposatu diren azken aldaketek «ez dutela sobera hobetzen kultur etxearen proiektua eta Nafarroako Gobernutik proiektua onartzea aunitz atzeratuko» litzatekeela.

Espainiako Gobernuak emandako dirulaguntzaren inguruan ere kezka azaldu du PNVko udal taldeak. Kultur etxearen eraikuntza behar baino gehiago gibelatzen bada ezerezean gera daitekeelako 3.600.000 euroko dirulaguntza, «ez baita subentzio arrunta, kaduzitate-data izan dezakeen negoziazio baten emaitza baizik».

Arrazoi hauek tartean, EAJK udalari herriko kultur elkarteekin bilera bat egin dezan eskatu dio, proiektuaren egoera azaldu eta zer egin aztertzeko. Kultura Departamentuarekin harremanetan jartzea ere eskatu dio, behar diren baimenak lehenbailen lortzeko. Proiektuan aldaketak egin behar badira erabakiak lehenbailen hartzea ere eskatu du.



ARGAZKIAK: AITOR AROTZENA / ONDIKOL

Guttiago falta da 2012ko Sanferminetarako!

Bezperan, 95 urteko Justo Urkijok bota zuen txupinazoarekin abiatu ziren herriko bestak giro ederrean joan dira. Duela 72 urte ailegatu zen Urkijo bizkaitarra herrira preso errepublikar gisara eta, bertze lanen artean, Agiñako errepidea bortxan egin zuen bataloi disziplinarioko kide izan zen. Herrian laketu eta familia sortu zuen. San Fermin egunean ezpatadantzarien txanda izan zen eta ederki bete zuten bere lana goiz-arratsaldez. Peio Etxabidek ere estreinekoa egin zuen aginte-makilarekin. Peñen egunean, goizeko tanborradan partehartze handia izan zen, tartean 25. urteurrena ospatu zuten Baikorrek peñako ki-deena. Arratsaldeko jautsieran ere giro ederra izan zen. Umeen eta bikoteen eguneko ospakizunak ere, jende oldearen artean egin ziren, nola edo hala.



GIZARTEA → OSPAKIZUNAK

Altxataren 20 urteak ospatzeko besta eguna antolatu da uztailaren 31rako

Etxalarko I. Herri Argazki lehiaketa eginen da eta Pello Apezetxeari omenaldia eginen zaio

Irune eta Itsaso

Uztailaren 31n ospatuko da Altxata kultur elkarteren 20. urteurrena. Goizetik trikitilari eta txistulariek kalejira eginen dute meza aitzinetik. Ondotik Pello Apezetxeari omenaldia eginen zaio plazan. Gero, herri bazkaria izanen da frontoian. Bazkalondan Euskal Kantuak kantatuz alaituko da giroa. honetarako aitzineko bi asteetan txartelak salgai egonen dira Elutsa, Herriko ostatua edo 677031920 telefonoan (Edurene).

Arratsaldean I. Argazki lehiaketa eginen da. Etxalarki lotutako edozein gairi buruzko azken hogeitau urteotako argazkiak aurkez daitezke Kultur Etxeko Altxataren buzoian sartuz edo Axun Maia edo Maite Goienetxeri eskura emanez uztailaren 25a baino lehen. Entregatzen den sobrean ongi zehaztu beharko dira argazkilariaren izen abizenak eta kontakturako telefonoa. Argazkiaren neurriak 10x15-ekoa izan behar du gutierrez eta pertsona baten balorazioaren %50a epaimahaiak eginen bado ere, gainerakoa herriarren esku izanen da. Horretarako goizeko ekitaldiaren ondotik ordu erdi batez botoa emateko aukera izanen da; baita arratsaldeko



ARGAZKIA: LEIRE IRIBARREN

Miren eta Izaro txapeldun Lesakan

Uztailaren 3an ospatu zen Baztan-Malerreka-Bidasoako XIV. trikitixa txapelketa. Aurtengoan zazpi bikote izan ziren handien mailan. Herriatik bikote bakarra aurkeztu zen eta beraiek izan ziren txapeldunak: Miren Lasaga trikitixarekin eta Izaro Iribarren panderetarekin. Porrusalda eta fandangoa jo zituzten eta ongi erakutsi zuten trikitixa eta panderetarekin ederki moldatzen direla.

17:00etatik 17:30era ere. Sari banaketa 18:30ean izanen da. Lehenbiziko saria 2 lagunentzako landa etxe batean asteburuko egonaldia; bigarrena, bi lagunentzako afaria; eta hirugarren saski eder bat. Zalantza argitzeko deitu 677031920ra.

Presoen aldeko kontzentrazioak

Orain arte herrian presoan aldeko bi kontzentrazio egiten ziren

urtean zehar: besta bezperan eta urteko azken egunean. Hemenetik aitzinera hilabete azken ortziletan ere eginen dira 20:00-etan, plazan.

Indonesia eta Mexikoko dantzariak

Irungo Eraiki Taldearen eskutik eta XV. Nazioarteko Gazteen Folklore Jaiadiaren barnean, uztailaren 25ean, igandea, Eraikiko dan-

tzariakin batera, Mexiko eta Indonesiakoa dantzari ariko dira Plazan.

Ehiza postu guztiak subastara

1920az geroztik Usategietan ehiza postu batzuk herriko ehiztari-entzat izaten ziren erre-serbatuak. Azkeneko udalbatzarrean, Independenteen eta Etxalar Aitzineraren botoekin, postu guztiak subastara ateratzea erabaki da irailaren 3an.

Kortxe
Bertan egindako produktuak,
bertan merkatu eta ekologikoak.
Organikak - Burdin trenak
Injektzioak - Edanak - Haziak
Botikak (jenezetarekin)
Etxez ebeko banaketa egiten da
Kalefaktzioa eta ibigailuendako gasolioa

Tel. eta Faxa: 946 63 52 14 + ETXALAR

USOA
Nekazarri kooperatibista

Tel. eta Faxa: 946 63 52 14 + ETXALAR

LEGARRA

Egunkariak | aldizkariak | liburak | oporrik | bitarteko bitartekoak | enkoademazkoak | plakatuzkoak | txi publikoak

ZERBITZU BERRIAK!!

FOTOKOPIAK KOLORETAN A3 eta A4
USB-lik zuzenean inprimatzen dugu

Tel. 946 63 70 30 - Albulu, 9 - LESAKA

30 BEKO

Herriko ostatua - LESAKA
Tel. 946 637 906

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA SARE SOZIALEAN

facebook

www.facebook.com/ttppi.ttapa

ARANTZA

OSPAKIZUNAK → DENA PREST DAGO

Larunbat honetan egingen dira Ballekasko bestak

Bigarren urtez, egun eder bat pasatzeko aukera da Beheko Pisutan

Nerea ALTZURI

Iaz hasi ziren Beheko Pisutako bizilagunak mugitzen eta egun ederra atera zen. Aurtengoan ere berriz Ballekasko bestak antolatu dituzte eta larunbat honetan, hilaren 23an egun osoan zer egin izanen da.

Goizeko 11etan herriko karriketan barna trikipoteoa egingen dute. Ondotik, herriko plazan enkartelada egingen da, 12:30ak aldera. Ordubatean, Ballekasen altxafe-rua botako dute. Gero, bertako dantzarien saioa izanen da. Herri bazkarian bilduko dira gero, eta bazkalostea bertsolariak eta albokariak girotuko dute. Arratsaldean, 17:30ean haur eta helduentzako jokoak prestatuko dituzte. Ilunabarreko 20:00etan musika (sorpresa) izanen da eta 22:00etan zingar jatea egingen dute. Ballekas-

koek herritar guztiak gonbidatu dituzte bestarekin gozatzera.

Uztaileko udal informazioa

Aintzineko agintaldiko ohiturari eutsiz, berriki estreinatutako udal taldeak, udal informazioa etxez etxe banatu du. Berrietan tartean honako puntu hauek azpimarratzen dira.

• **Medikuaren etxea.** Medikua etxeari dagokionez, iaz etxebizitza alokatzeko aukera eman zuen udalak. Deialdian Mirari Leizak bakarrik eman zuen izena eta berri eman zitzaion etxebizitza alokairuan. Hala ere, honen ezezkoren ondoren, berriz ere enkante publikora atera da alokairu proposamena. Joan den ortzirala arte izena emateko aukera zegoen Herriko Etxean. Etxea alokatzeko hasierako kopurua hilabeteko 300 eurokoa izatea adostu zen joan den hilabeteko udalbatzarrean eta diru gehien eskaintzen duen proposamenak eta Arantzan errolatua denak ere lehen-



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko besten egitaraua prestatuxea

Hurrengo alean egitarauaren berri xeheago emanen dugun herriko bestak, abuztuaren 14an, eguerdiko 12etan lehertuko baldin badira ere, hilaren 13an, ostatuek eta gazte asanbladak antolatuta giroan sartuko gara. Bertzalde, herri bazkarian, eguraldiak laguntzen badu, berrikuntza bat izanen denez, herritar guztiak parte hartzea animatzen ditu udalak.

tasuna izanen dute.

• **Auzolana.** Auzolanen ohitura eta betebeharrekin segitzea erabaki du udal berriak. Auzolanen nondik norakoak oroitarazteaz gain, auzo bakoitzetan arduradun bat izanen da:

Bordalarrean Teodoro Pikabea, Azkilarrean Felix Iparragirre, Aiantzan Josetxo Taberna eta herrian Inaxio Madariaga eta Gotzon Arenas.

Informazio gehiago jakin nahi izanez gero, udaletxera hotseginez, agertuz edo zuzenean, auzolanetako zinegotzian den Inaxio Madariagarengana jo dezake herritarrek.

Nolanahi ere, helburua

bikoitza dute auzolanek: herria txukun mantentzea eta, bidenabar, herriaren alde lan egitea. Beraz, 18 eta 65 urte tartean dituzten herritar guztiak, ezintasun bat dutenek ez berte, auzolanak egin behar dituzte. Etxe edo famili bakoitzak guttienez, borts orduko bi egun egin beharko ditu eta egiten ez duen familiak egun bakoitzeko 45 euro ordaindu beharko du. Gogoratu, auzolanetan suerta daitezkeen lan istripuak beregain hartuko dituela udalak seguru berezi baten bitartez. Horretarako, aitzinetik Herriko Etxean izena eman beharko da.

FLASH

Goiko Karrikako trafikoa

Bertze aldi batez, udalak oroitarazi nahi du goiko karrikan aparkatzea debekatua dagoela. Bide hori auto eta kamioi gehien pasatzen den lekua denez, autoak ez bertan aparkatzea eskatzen du udalak berriz ere, trafikoa hobetzeko eta arriskua guttitzeko. Arazo hau konpondu ezean, neurriak hartu beharrean izanen direla gaineratu da udal informazioan.

Kontzertuak Aterpen

Azkeneko udatarik ohiturari eutsiz, zuzeneko kontzertuak izanen dira Aterpen, arratseko 23:00etan hasita. Uztailearen 29an Makala arikoda, abuztuaren 12an Keu eta abuztuaren 13an DJ Alai.

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta barnizatzen ditun.
Sakelekoak: 637 836 073 - LESAKA

BIDASOA
BILKAKA - FERRETIK
BERRIKAL - AIZKARREK
BERRIKAL - BERRIKAL
T.F. 859 971 442
BERA

TTPI-TTAPA ALDUKARIA
SARE SOZIALEAN
facebook
www.facebook.com/ttapa

GIZARTEA → HIRU URTE EMAN DITUZTE

Liburutegiko katalogazio lana bukatzen ari dira eskolan

Ikasle, irakasle eta gurasoak ari dira

TTIPI-TTAPA

Liburuak, bideoak, DVDak, CDak, aldizkariak, ordenagailuak... Denetarik aurki daitezke eskolako mediaketa berrian. Material horisailkatzen eta katalogatzen eman dituzte azken hiru urteak. Ikasturtean ikasle eta irakasleek egiten duten lanari gurasoek uda partean ematen diote segida. Uda honetan ere dozenaren bat guraso ari dira ka-

talogazio lanean eta badiurudi uda honetan bukatuko dutela lana. Momentuz material hori eskolako eskura dago, baina zerbitzua herri osoari eskaintzea da asmoa, Joxean Ortega eskolako zuzendariak aipatu digunez.

Iaz, Nafarroako Gobernua irakurketa indartzeko antolatutako sariketari, 250 euro eman zizkion eskolari.

Iñaki Bereau Nafarroako txapeldun

Uztailaren 8an jokatzen zen Iruñean Nafarroako



Herriko gaztetxoak Iruñeko Sanferminetako herri kirol jaialdian

Ignantziko herri kirol taldeko gaztetxoek ere parte hartu zuten Iruñeko sanferminetan Foru plazan egiten den herri kirol saioetako batean. Proba konbinatuan aritu ziren eta hirugarren sailkatu ziren.

roako lasto altxatze txapelketa. Bortz kirolari lehiatu ziren, 45 kiloko lasto fardoari bi minututan ahalik eta altxaldi gehien emateko, bortzak igantziarrak. Iñaki Bereau suertatu zen txapeldun 22 altxaldirekin. Karlos Sein izan zen bigarren (21), Oskar Telletxea hirugarren (20), Arkaitz Retegi laugarren

(10) eta Eneko Telletxea bosgarren (6).

Mendi bizikleta jautsiera larunbatean

Aitzineko alean aipatu bezala, larunbat honetan, uztailaren 23an egingen da Biltoki elkarrekin antolatutako mendi bizikleta jautsiera, aur-

ten Xabi Telletxearen izena hartuko duena. Euskadiko Irekirako saio puntuagarria izanen da. Goizeko 08:30etik aitzinera izanen da entrenatzeko aukera eta 12:30ean Xabi Telletxea zenari omenaldia eskainiko zaio Frainen. Arratsaldeko 15:00etan hasiko dira probak bi txandatan.

edredoi fundak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
albornoak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634



Udako merkealdia

SUNBILLA

AIZKORA → HAMARGARREN EDIZIOA

Besten egitarauaren barrenean eginen da lehen aldiz Latasa Memoriala

Gaztetxoen sariketa ere eginen da abuztuaren 11n

Maider PETRIRENA

Hamargarren urtez eginen da Ramon Latasa aizkora sariketa. Abuztuaren 11n izanen da 19:00etatik aitzinera. Aurten gainera lehen aldiz herriko besten barrenean jokatu da. Sei aizkolarik hartuko dute parte hiru bikotetan banaturik: Nazabal-Etxeberria, Larretxea-Atutxa II eta Lopez-Arrospide. Lau proba egin beharko dituzte sei aizkolariek. Lehenengo bi kanaerdiko enbor bana moztu beharko dute, ondotik zutikako kanaerdiko bat moztu beharko dute eta 45 ontzako etzandako bi enbor. Hirugarren proba banakakoa izanen dute, bakoitzak lau kanaerdiko ebaki beharko ditu. Buka-

tzeko berriz ere bikoteka lau kanaerdiko eta lau 60 ontzako moztu beharko dituzte.

Gazteen sariketak V. edizioa izanen du eta hemen ere sei aizkolariri ariko dira bikoteka. Oihan Larretxea-Arkaitz Olano, Ugaitz Mugerza-Aratz Mugerza eta Ander Erasun-Ruben Saralegi. Gazteek hiru proba egin beharko dituzte. Lehendabizirik bikoteka 45 ontzako zutikako enborra eta etzandako bi ebaki beharko dituzte. Bigarren proba banakakoa izanen dute eta hemen 45 ontzako launa enbor moztu beharko dituzte. Bukatzeko berriz ere bikoteka lau kanaerdiko eta 60 ontzako bi enbor ebaki beharko dituzte.

Aurten lehen aldiz eginen dute gaztetxoen mailako sariketa. Hiru aizkolarik gazte izanen dira parte hartzen: Mikel Zabaleta, Iker Vicente eta Joxean Etxebe-



ARGAZKIA: MAIDER PETRIRENA
Saharatik uda pasa

Saharatik 2 haurra etorri dira Sunbillara: Salma eta Maimuna izenekoak. Salma Izaskun Altzuriren etxera etorri da eta haurra bere 2. urtea Sunbillan. Maimuna berriz Aintzane Agirrerengana etorri da eta haurra bere 3. urtea. Abuztuaren 19 arte izanen ditugu hemen.



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Latsako eskolako ikasle ohien bilkura kanpinean

Ekainaren 18an Sunbillako kanpinean bigarren urtez elkartu ziren Latsako Eskolan ikasitako ikaskideak. Hagitz ongi pasa omen zuten.

ria. Hauek banaka hartuko dute parte eta bi proba egin beharko dituzte. Leheneik bakoitzak 45 ontzako enbor bat moztu beharko du eta ondoren 45 ontzako hiruna enbor moztu beharko dituzte.

Udal karguak

Uztailaren 1ean egindako udalbatzarrean hautatu ziren batzordeetako buruak. Hirigintza:

Paco Errandonea. Hezkuntza: Amets Inda. Mendia: Mario Mitxelena presidente eta Jose Miguel Zelaia-eta administratzailea. Kultura, Kirola eta Gazteria: Florentino Gelbentzu. Malerreka Mankomunitatean Margari Capdequi eta Mari Jose Mitxelena izanen dira udal ordezkariak eta Bertizko Partzuergo Turistikoa eta Cederna-

Garalur erakundeetan, berriz, Amets Inda alkateta.

Igeriketa

Uztailaren 4an hasi ziren igerilekuan igeriketa ikastaroak: 3-4, 5-6 eta 7-8 urtekoak lehen hamabostaldian eginen dute. Miren Mangado da irakasle. Helduek egin nahi badute aski dute igerilekura deitu eta apuntatu.

APARAN, S.A.
BRIKOLAJA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate aruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta berntzak
- Bainurako mogleak eta osagarrak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab.

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

ZOANSA

MARKA GUZTIEN KONPONKETA
Baratz, 2 - Alkiza Industrialdea
LESAKA (Baratz Baratz)
Tel: 948 626 535 - Fax: 948 625 505

SEAT, VW, HYUNDAI, Audi

UDALA → EGOERA EKONOMIKOA KONTUAN HARTUZ

Alkateak uko eginen dio dagokion soldatari

Batzar eta batzordeetara joateagatik bakarrik kobratuko du

teagatik 150 euro eta batzordeetara joateagatik 75 euro kobratuko ditu, gainerako zinegotziek bezala.

Udako kirol eskola

Uztailaren 11n hasi zen Errekak antolatutako Udako Kirol Eskola. 40 haur eta gazte inguru dituzte apuntatuak eta arrakasta hau ikusirik, bi taldetan banatu ordez, aurreikusita zegoen bezala, hiru taldetan banatu dituzte apuntatu diren guztiak, adinen arabera.

TTIPI-TTAPA

Aitzineko legegaldian egin zuen bezalaxe eta egoera ekonomikoa kontuan hartuz, Miguel San Miguel alkateak ez du bere kargu publikoaren inguruetatik dagokiona kobratuko. Orduan bezala, udal batzarretara joa-



ARGAZKIA: ERREKA

Erreka Mendi Taldea Baciás mendira joanen da hilaren 30ean

Azken uda hauetan Pirinio aldera ateraldi bat antolatzen du Erreka Elkarteak. Orain dela bi urte Hiru Erregeen Mahaia mendira joan ziren, joan den urtean Bisaurinera eta aurten Baciás mendia aukeratu da. 2.760 metroko mendia da, erraza, ibiltzeko ohitura pixka bat duenak erraztasun osoz egin dezakeena. Kotxeetan Panticosako Balneariora joanen dira mendizaleak, eta hortik igotzen hasiko dira. Eguna bukatzeko, ohitura den bezala, afari eder bat eginen dute. Hitzordua uztailaren 30a, larunbata, izanen da. Argazkia, joan den urteko ateraldikoa da, Bisaurineko kaxkoan.



CERVECERIA ALEMANA



Gure berezitasunak:

TAULAK
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK
PINTXOAK

Ameztiá, 5
Doneztebe

T. 617 059 683

ZUBIETA

OSPAKIZUNAK → AMABIRJIN EGUNEKO MEZA ONDOTIK

Omenaldia eskainiko zaie joaldunak herritik kanpora ezagutzera eman zutenei

Duela 40 urte joan ziren Errenteriako Madalenetara

Fermin ETXEKOLONEA

Joaldunak kanpora ateratzen hasi zirela 40 urte bete dira aurten. 1971an hasi ziren ateratzen Errenteriko Madalenetara. Gero, inauterietan ez ezik, festetan ere Amabirjin mezondoko ibilalditxoa egiten hasi ziren urte berean. Or-

duan joaldun ziren hamaka lagun omenduko ditu Joaldunen Elkarteak eta Udalak, Amabirjin eguneko meza ondotik. Artzaina Pedro Mutuberria eta joaldunak Pedro Monaco, Santiago Elizalde, Lino Indakotxea, Juan Elizalde, Marcos Juanikorena, Alejandro Santesteban, Jesus Mari Babaze, Koteto Juanikorena eta Floren Juanikorena. Hiru hilak dira eta beraien familiakoek hartuko dute oroigarria

Joaldunen Elkartetik eta udalaren eskutik.

Loiarate aizkoran

laz hirugarren mailan txapeldun izan ondotik, Jose Antonio Loiarate bigarren mailako kanporaketan ariko da Elizondon uztailaren 24an. 50 urte egin behar ditu Loiaratek eta sasoiko dago.

Bi ahari falta

Petrixeneko bi ahari falta dira azken hilabeteetan. Bat mutur gorria, joarearekin eta adarrik



UTZITAKO ARGAZKIA

Kilo bako gehiagoko patata

Irudian ageri den kilo pasatuxeko patata eder hori bildu zuen Joanamariko Juliana Mutuberriak.

gabea eta ezker belarri- an miru buztana seinalea. Bestea mutur argia da, joarearekin eta adarrik gabea. Eskuineko be-

larrian punta motza eta koxka aurretikan. Artalde Zubietako antena inguruan ibiltzen da, Mingedia borda inguruan.

LEGASA

ELKARTEAK → OSPAKIZUNAK

Kuku elkartearen 25. urteurrena ospatuko da abuztuaren 20an

26 lagunekin hasi eta dagoeneko 96 bazkide ditu

TTIPI-TTAPA

Hogeita bostz urte pasa dira herriko 26 lagunek auzolanean Kuku elkartearen egin zutela.

1986ko abuztuaren atean ireki ziren lehen

aldiz. Guttu gora behe- ra abuztu erdialdean izan zen. Esfortzu, ilusio eta gogo aunitzekin eman zitzaion hasiera elkarte berriari.

Gaur egun, ia lau-koiztu egin da bazkide kopurua. Eta aurtengo datuen arabera 96 bazkide ditu Kuku.

Guzti hau ospatzeko asmoz eta 26 'gazte' horiei, bere lana eta herri-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kuku elkartearen sortu zutenetako batzuk, aspaldiko argazkian.

tarrei utzi dioten ondare eskertzeko asmoz, omenaldi txiki bat eginen zaie abuztuaren 20an.

Egitaraua goiz goizetik gosari batekin ha-

siko da. Ondotik, mus txapelketa eginen da.

Eguerdialdean, omenaldi txiki bat eginen zaie bazkide sortzaileei eta bazkari goxo bat izanen da ondotik. Arra-

tsean, DJ Iñigo izanen da musika jartzen. Gaueko 22:00etan afora izanen da eta honekin bukaera emanen zaie mende laurdeneko ospakizun ekitaldiei.

Udako merkealdia koltxoietan

%25eko deskontuak

confortplus koltxoia



+ oinarri tapizatua edo Apolo somiera



	90	105	135	150
190 /	297€	332€	411€	452€

Azal inapropiarik kargurik gabe. Herrialde prezioen sartu gabe.

+ ordesa kanapea (EGURRA)



	90	105	135	150
190 /	570€	615€	716€	768€

Azal inapropiarik kargurik gabe.

+ urban kanapea (EGURRA)



	90	105	135	150
190 /	482€	527€	635€	684€

Azal inapropiarik kargurik gabe.

+ master kanapea (POLIUREA)



	90	105	135	135 partea	150
190 /	646€	700€	825€	859€	912€

Azal inapropiarik kargurik gabe.

koltxoia + viscodream



viscodream hirmosin/korra



	90	105	135	150
190 /	161€	183€	229€	253€

omega + koltxoia

oinarri tapizatua edo Apolo somiera




OPARIA

INVITE

hankak barne

	90	105	135	150
190 /	235€	274€	319€	348€



Rosa Seminario, 12 • DONEZTEBE
T. 948 450 258 • 948 451 811
info@mueblestelletxea.com
www.mueblestelletxea.com

BEINTZA-LABAIEN

HERRIKO BESTAK → ABUZTUAREN 5ETIK 9RA

Aizkora apustuak kasik egunero izanen dira

Azken egunean kantu zaharrekin girotutako herri bazkaria egingen da

ORTZIRALA 5 (Labaian)

20:00etan altxaferoak beste hasiera emateko. **Ondoren** kalejirak txistulariekin. **21:00etan** zopak, Iturrondo elkartean eta herriko ostatuan. **Gauetz** dantzaldia.

LARUNBATA 6 (Beintza)

10:00etan kalejira txistulariekin. **11:00etatik 13:00etara** puzgarriak. **13:00etan** aizkora apostua: Tito- Miguel Angel; Jose Luis-Pedro; Javier-Jacinto. **17:00etatik 19:00etara** puzgarriak. **18:00etan** idi proba. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Gabezin taldearekin.

IGANDEA 7 (Labaian)

11:00etan kalejirak txistulariekin. **11:30ean** meza nagusia **13:30ean** Aizkora apostua: Larretxea aita-semeak; Na-

zabal-Erasun; Atutxa-Azurmendi. **18:00etan** Pailasoak: Putxin-Patxin. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Gabezin taldearekin.

ASTELEHENA 8 (Beintza)

11:00etan kalejirak txistulariekin. **11:00etan** Plater-tiroketa. **17:00etan** Mus txapelketa. **21:00etan** Tortilla eta postre lehiaketa. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Joxe Anjel akordiolariarekin.



ARGAZKIAK: AMAIA MINDEGIAK UTZIAK

Herri kiroletan ez ezik, gauean eta kantu zaharrekin girotutako herri bazkarian ere giro ederra izanen da Beintza-Labaiengo bestetan.

ASTEARTEA 9 (Labaian)

11:00etan kalejirak txistulariekin. **Eguerdian** aizkora apostua: Larrea - Irutxinberri. Harri jasotzailea: Josetxo Urrutia. **14:00etan** kantu zaharrekin girotutako herri bazkaria. Bazkal ondoren karrika ronda txistulariekin. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia Joxe Anjel akordiolariarekin. Gauerdian Gai-xoa ni besteei bukaera emanez.



Besta onak opa dizkie herritar eta bisitari guztiei

LABAIENGO Herriko Ostata

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 811

ORBELA
Sanderimoda - Alborgea

BEINTZAKO OSTATUA ATERPETXEA
Idoiz - Mikel

T. 948 450 814 - 11733 BEINTZALABAIN
orbela@albergosanderimoda.com • www.albergosanderimoda.com/beintza

BALEZTENA
Jasotzen

Ongi pasa bestak!

T. 948 450 844
Aizkora/Bazkaria
BEINTZA-LABAIEN

SANTO DOMINGO BESTAK → ABUZTUAREN 3TIK 7RA OSPATUKO DIRA

Partxis txapelketa eta pilota partidak egun handirako

Bestak akitzeko aizkora apustua eta trikitixa jaialdia izanen dira

ASTEAZKENA 3

20:00etan suziriak eta ondoren txistulariak herria alaitzen ibiliko dira. **21:00etan** zopak herriko ostatuan.

OSTEGUNA 4 Santo Domingo Eguna

11:30ean Meza Nagusia eta ondoren salda herriko ostatuan. **17:00etan** partxis txapelketa. **18:00etan** pilota partidak Errekaren eskutik. **19:30etik 22:00 etara** dantzaldia AGERRALDEekin.

OSTIRALA 5

09:00etan gosaria. **10:30ean** kalejira trikitixarekin. **11:00etan**



ARGAZKIA: ASUN GAMIO
Ostiraleko herri bazkarian ederki pasatuko dute adin guzietako gazteek.

ARGAZKIA: EDURNE SARRATEA
Ttikienek larunbata izanen dute egun berezia.

haurjokoak. **14:00etan** herri bazkaria. Arratsaldez eta gauez dantzaldia AGERRALDEekin.

LARUNBATA 6

10:00etan kalejira. **11:30ean** Gorritiren erakustaldia. **17:30ean** mus txapelketa. Arratsalde-

an puzgarriak eta ondoren txokolatada. **22:00etan** gazteen afaria. **Arratsaldez eta gauez** dantzaldia AIE-RRIK taldearekin.

IGANDEA 7

10:00etan kalejira. **12:30ean** aizkora apos-

tua (Ander Erason-Manuel Kañamares). **18:30ean** trikitixa ikustaldia Lesakako TRIKIPAND taldearen eskutik. **19:30etik 22:00etara** dantzaldia AGERRALDEekin. Ondoren GAIXOA NI.

LANA

1.046 langabetu ekain hondarrean

TTIPI-TTAPA

Udaberriko martxari eutsi eta langabetu kopurua pixkanaka jausten ari da eskualdean uda hasiera honetan ere. 1.046 langabetu zeuden ekain hondarrean Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emanak, maiatzean baino 64 guttiago (%5,77ko jautsiera, Nafarroako %2,51ko banaz bertzeokoren gainetik eta bulego guzien artean handiena). Ekainean 481 kontratu gauzatu dira Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez, baina horietatik 35 bakarrik izan dira mugagabeak. Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak jarraitzen du langabe gehien izaten. Halere, ekainean 671tik 644ra jautsi da langabetu kopurua. Industria arloan ere jautsi egin da 192tik 167ra. Eraikuntzan ere jautsi da, maiatzeko 144tik 141era. Nekazaritzan, ere bi lagun guttiago daude lanik gabe, 21, eta aitzinetik lanik egin ez dutenen artean ere, 73 lagun daude langabezia, maiatzean baino 7 guttiago. Adin eta sexuari dagokionez, bakarrik 25 urte baino gehiagoko emakumeen artean egin du goiti langabeziak. Emakume gazteagoetan, aldiz, 56tik 38ra jautsi da langabetu kopurua ekainean.


TXARUTA, S.L.
 Iturgintza · Berokuntza · Gasa
ongi pasa bertatik!
 948 45 17 28 • 659 77 00 15
 GAZTELU

616 513 491
Pilota
ESKABAZIOAK
GARRAIOAK, ESKABAZIOAK, KONTENEDOREEN ZERBITZUAK

 Kontenedoreak: 5 m³ - 7 m³ - 12 m³ - 20 m³
Mota guztietako hondakinak biltzen dira
 Tel/Fax: 948 45 13 89
 C/ Ametzia, 1 • 31740 Doneztebe (Nafarroa)

EZKURRA

ATZERA BEGIRA → UDAL ARTXIBOKO BITXIKERIAK

Basaburua Ttikiko udalak elkartzeko saiakera gehiago egin ziren

Ezkurrako Udalak ez zuen horren beharrik ikusten

Fernando ETXEBERRIA

Aurreko alean esan bezala Basaburua Ttikiko herriak elkartzeko saiatu zen Gobernadore Zibila. Guztiek udal bakarria osatuz eta Eratsun hiriburua bezala proposatuz. Udal artxiboban berriro begiratu 1924ko urriaren 1ean, Ezkurrako udala erabakiaren kontra azaldu zen. Artxiboko aktek diotenez beste bi saiakera egin ziren Basaburua Ttikiko hiru herriak udal bakarrean elkartzeko. Ezkurrakoak ez zuen horren beharrik ikusten langileen gastuak ordaintzeko nahiko baliabide bazituelako: idazkaria, aguazila, medikua... eta elkartzeak ez zuela ekonomikoki hobekuntzarik ekarriko adierazi zuen.

Harritzekoa dena Ezkurra, Eratsun eta Saldiasi, Areso elkartzeko saiakera. 1984ko martxoaren 30ean elkartu ziren udalak bilera egiteko eta ezezkoa eman zuten idazkariarentzat ezinekoko zelako lau herrietaz behar bezala arduratzea argudiatuz. Kontuan hartu beharkekozen Aresoren urruntasuna, neguko elurteak asko zailtzen baitzuten bertara iristea. Eta ez zuen inongo onura ez ekonomikoz ez eta funtzionalik ere ematen.

Bizilagunen eta udal-letxearen arteko istiluen iturri izan dira askotan **iralekuak**. Nafarroako Gobernuak lur komunak direla esaten du, bizilagunek euren jabetza bermatzen duten dokumentuak aurkeztu izan dituzten arren.

Argi dagoena gaztainadien jabetza da. Udala, 1965eko urtarrilaren 18an elkartu zen eta gaztainadien jabetza pribatua onartu zuten,



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Herriko bi aizkolari Euskadiko txapelketan

Uztailaren 3an Usurbilen egin zen Euskadiko III. mailako aizkolari txapeleketako kanporaketa. Ezkurrako bi ordezkari izan ziren, Xabier Etxeberria eta Moises Gogorza. 38 aizkolari hartu dute parte txapelketa honetan, Etxeberriak zortzigarren egin zuen eta Gogorzak hamargarren.



bai Ezkurrako udalak eta baita Diputazioak ere.

ELIZA ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANA

Gaur egun apaizgintzan krisia bada ere, gogoratu behar da 60ko hamarkadan Ezkurran lau meza ematen zirela. Herriko Etxeak lehen lau presbiteroei irratiaik oparitu zizkien. Horrez gain pilota partidak an-

tolatu zituen eta musika txistulariekin, herri-tarren parte hartzea eta laguntza eskatuz.

Eliza eta udalaren arteko erlazio ona begi bistakoa zen. 1955ean batera antolatu baitziztuzten erreguak. Hiru egunez segidan egin zituzten, garaiko lehorteatatik.

Hurrengo urtean aurkakoa gertatu zen, ekai-

nahilabete euritsua izan zen eta berriz ere prozesio eta erreguak antolatu zituzten eguraldiak hobera egin zezan.

Emitaitza onak izan zituzten erreguek, eguraldiak onera egin baitzuten. Udalak elizari erreguak egiteari uzteko eskatu zion eta berriz eguraldi txarrak bueltatuz gero jarriko zirela harremanetan.

ttiipi-ttapa egin zaitez harpidedun!

Bete txartel honetan zure datuak eta bidali gure helbidera: **TTIPI-TTAPA | Anduetzeta. 12 | 31760 ETXALAR**

URTEKO HARPIDETZA:
 Baztan, Urdazubi eta Maleroka 31€
 Leitza 15€
 Hego Euskal Herria 37€
 Ipar Euskal Herria 56€
 Europa 55€
 Amerika eta Australia 123€

Izen-Deiturak _____
 Heibidea _____ Hiria _____ Telefonoa _____
 e-posta _____ Karneta:
 Bankua:

www.ttipi-ttapa.com

OSPAKIZUNAK → GARAI BATEAN BEZALA

Karmen bezperako ospakizuna berreskuratu da


Afaria egin zen plazan eta gero suaren gainean saltoka ibili zen jendea

berreskuratzeko lehen urratsa eman zen joan den ostiralean. Herriko kultur talde ezberdinek bultzatutako herri ekimenaren bidez, herri afaria egin zen plazan. Lagun talde bakoitzak bere otordua eraman zuen eta afalondoan, suaren gainetik saltoka ibili ziren herritarrak giro ederrean, San Juan bezperan bezalaxe.

Garai batean aski ohitura errotua zen Karmen bezperako suarena eta baserrietan, hazitako arbiaren zurtoina erretzen omen zen. Ostiraleko arrakasta ikusita, berreskuratze bidean dago ohitura.

TTIPI-TTAPA

Beti ongi dago garai bateko ohiturak berreskuratzea. Herrian, galduta zegoen udazkenekoazienda feria berreskuratu zen duela urte batzuk eta ikusi besterik ez da egin behar urte urte izan duen arrakasta. Galdutzat eman zitekeen beste aspaldiko ohitura bat, Karmen bezperako ospakizuna



ARGAZKIAK: FELIX LOIARTE

Abesbatzaren ateraldiak

Abesbatza herriko mugetatik kanpo ere ezagutzera ematen ari da. Ekainean bi ateraldi egin zituen. Lehenengoa, Santanderren arrauneko liga aurkezteko emanaldian, Goizuetako Umore Ona, Hernaniko Kantuz eta Ereñotzuko Ozenki abesbatzak, parte hartu zuten ekainaren 11n. Bestea, ekainaren 25ean Donostiako Igara auzoan Luberri abesbatzarekin egin zen elkartrukeko emanaldia da. Emanaldi hauen eta beste batzuen bideoa YouTubean ikus daiteke, *felixloi* helbidean hain zuzen.

LEITZALDEA

TURISMOA → HAMAR AUKERA IZANEN DIRA, BATZUK LEITZAN

Plazaolako Partzuergoak bisita gidatuak antolatu ditu

'2011ko uda oihanaren bihotzean' izenburupean

tengo udarako ere 10 eskaintza prestatu dituzte jende guztiarentzat. Bisita hauek egiteko erreserbak aurretik egin beharko dira. Informazio guztia www.plazaola.org orrialdean dago.

Plazaolako Natur Bidetik Lekunberri eta Leitzako herrigunea ezagutzeko aukera ematen da. Leitzako kasuan, geltokitik hasita Natur Bidean zehar paseoa, Itturizarreatik jeitsiz

antzinako garbitegitik pasaz eta Leitzako plazan bukatzen da. Uztailaren 23 eta 30ean, eta abuztuaren 6 eta 20an egingen dituzte bisita gidatuak.

Plazaolako Geltoki zaharrean erakusketa ibiltaria izanen da.

Saralegitarren Arro baserriko bizi martxa ikusteko aukera ere izanen da Kristina Saralegiren eskutik. Baserriko animaliak ikusi ondoren talogintza tailerra



Peru-Harrira bisita gidatua ere eskaintzen du Plazaolak.

eta probaketa egingo dira.

Peru-Harri, Harriaren Parkea eta Museoa ere bisita daiteke, Iñaki Perurena harri jasotzaileak diseinatutako museo ikusteko. Gero kirolen historia eta Iñaki eta Inaxioren markak ezagutzeko aukera

ematen du baserriak.

Etxarri Larraungo Birkain gaztandegia, Ultzamako Ezkurdi Erlezaintza Museoa, Lacturaleko esne behien interpretazio gunea, Beigorri Abentura parkea edo Mendukiloko kobak bisitatzekoparada ere eskaintzen da.

TTIPI-TTAPA

'2011ko Uda oihanaren bihotzean' programa prestatu du Plazaolako Turismo Partzuergoak. Antolatu eta aukeratu daitezkeen bisita gidatuak egingen dituzte. Aurreko urteetako arrakasta ikusita, aur-

LEITZA

GIZARTEA → JAZARPENA SALATU DUTE

Audientzia Nazionalean deklaratu dute herriko hiru gaztek

Jone Lozano
aresoarraren
atxiloketa
salatu zuten

TIPI-TTAPA

Martxoan, Jone Lozano aresoarraren atxiloketa salatzen deialdia egiten zuen kartela jartzeagatik hiru leitzar identifikatu zituen Guardia Zibilak eta apirilean Joneren euskal herriratzeari eskatzeko argazkia jartzeagatik beste hiru. Hauei denei eginbideak ireki dizkiete.

Uztailaren 5ean, sei gazte hauetatik hiruk,

adin txikikoak hirurak, Madrilako Audientzia Nazionalean Adingabe-koen Salara deklaratzera joan behar izan zuten terrorismoari gora-zarre egitearen akusaziopean.

Leitzar talde batek ezagutzera eman duen idatziak dioenez, «behin eta berriz kriminalizatzen gaituzte, baina Leitzan dagoen elkartasunak errepresioa garaituko du. Elkartasuna balore indartsua da, kriminalizatu eta zigortu izateko. Euskal Herrian beti izan da elkartasuna injustizia bizi duenarentzat».



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Nafarroako Triatloi txapelketa irabazi du Judit Saizarrek

17 urte besterik ez baditu ere, senior nahiz junior mailako Nafarroako Triatloi txapelketak irabazi zituen uztailaren 10ean. Tuteran, XI. Reto del Ebro Triatloia egin zen eta leitzarrek ordubete, 11 minutu eta 31 segundu behar izan zituen Ebro ibaian 750 metro igerian, bizikletaz 20 kilometro eta korrika 5 kilometro egiteko. 4 minutu eta 10 segunduko aldea atera zion bigarren sailkatuari. Iaz, bigarren izan zen Saizar, sprintean galdu ondotik.

Euskal presoek argazkien «sorgin ehiza honetan», presoek bizi baldintzen salaketa, delitu bihurtu dituztela ere aipatu dute. «Argazkiak aitzakitzat hartuz, euskal presoekiko elkartasuna gure herriko txo-koetatik ezkatutu nahi-

an sei gazte auzi bidean jarri dituzte», diote.

Guardia Zibilek aldetik «Leitzako gazteen kontrako jazarpenean itsua eta kriminalizazio saiatuak hau» ere salatu nahi izan dute.

«Euskal Herrian bake eta justizia egoera

batera iristeko urrats garrantzitsuak eman direnean», Leitzako herritar hauek bere kezka agertu nahi izan dute herriko sei gazte hauen kontrako akusazioengatik, eta eginbideak bertan behera uztea eskatu dute.

KIROLA → NAFARROAKO HERRI KIROL TXAPELKETAK

Txapelez ongi hornituak etorri dira herriko kirolariak

Rekondo,
Urrutia eta
Sukuntza
txapelak

TIPI-TTAPA

Urtero bezala, herri kirolean Nafarroako hainbat txapel erabaki dira Iruñeko Sanferminetan. Uztailaren 10ean Nafarroako bikotekako aizkolari txapelketa jokatu zen eta Nazabal eta Rekondo leitzarrek gailendu ziren, Larretxea

aita semeak eta Lopez-Senosaiaren aurretik. 60 ontzako sei kanaerdiko ebaki behar zituen bikote bakoitzak eta azkeneko bi enborretan Rekondo eta Nazabalek aurre hartu zuten, garraipena eskuratuz. Bigarren postua lortu zuten Lopez-Senoaiaren bikoteak eta hirugarren egin zuten Larretxea aita semeak izan ziren.

Egun berean, Nafarroako guri altxatze txapelketan Josetxo Urrutiak irabazi zuen.

Hiru itzuli eman zuen 170 kiloko karroarekin. Lazaro Bujanek ere parte hartu zuen. Aipatzekoa da harrijasotze txapelketan ere azpitxapelak izan zela Urrutia.

Gizonezkoen txingara erute txapelketan bi leitzar izan ziren aurrez aurre uztailaren 12an, Miguel Angel Sukuntza eta Patxi Baraibar. Ahalik eta plaza gehien egiten behar zizuten esku banatan 50 kiloko txingak hartuta. Sukuntzak 17 plaza 1/4



ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Sukuntza eta Baraibar, txinga eramate txapelketa ondotik.

eta 4,80 metro egin zituen. Baraibarrek aldiz 10 plaza gutxiago egin zituen, guztira zazpi plaza 1/4 6,10 metro osatuz.

Jon Kanflanka azpitxapelak

Euskadiko Seguritate Txapelketako finala jokatu zen Oiarzungo Pikoke-

tan uztailaren 10ean. 2009an bezala, Lizaso asteasuarrak jantzi zuen txapela, 5.451 kilorekin. Iaz bezala txapelak geratu zen Jon Kanflanka segalari leitzarrek 306 kiloko gutxiago ebaki zituen. Mikel Alkorta izan zen hirugarren eta Arkaitz Artega laugarren.

HEZKUNTZA → UDAGIROAN

Ludoteka antolatu dute Guraso Elkarte eta kirol koordinatzailearen artean

Egunero 11etatik 13etara ibiltzen dira neska-mutikoak Alaitz eta Lorearekin

Juana Mari SAIZAR

Guraso elkarteak eta kirol koordinatzailearen artean ludoteka antolatu dute udarako eskolako umeentzat. Astero hainbat tailerraren artean, kirol jarduerak egingo dituzte, igerilekura, mendira eta beste tokietara irteerak... Aurtengoan monitore izateko Aresoko gazteak aukeratu dituzte, Alaitz

eta Lorea. Egunero, goizeko 11:00etatik 13:00etara biltzen dira.

Egur loteak

Udalak egur loteak ateratzeko bandoa zabaldu du, apuntatu daiteke uztailaren 19 arte eta zozketa irailaren 2an egingo da. Aurreko urtean bezelaxe, etxeraino ekartzea nahi duenak 125 euro ordaindu beharko du, lotea bota eta pistan ondoan uztea nahi duenak 45 euro ordaindu beharko du.

Asier Pellejero

3. mailako finalean

Asier Pellejero, hirugarren mailako Euska-

diko aizkolarien finalean izango da, Usurbilen uztailaren 3an jokatu kanporaketan bigarren egin baitzuen, Jauregiren ondok. Kanporaketan hamar aizkolaritari aritu ziren, launa kanardiko ebaki zituzten, eta gogor aritu ziren lanean. Jauregik 8 minutu eta 48 segundu behar izan zituen lana bukatzeko eta 30 urteko aresoarrak ia minutu gehiago (09:47).

Iaz ere Jauregi eta Pellejero finalean aritu ziren, beraz ez da ustegabea izan aurtengo finaleko txartelak eskuratzea. Ea Pellejero lan polita egin eta saria lortzen duen.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Anartz Olanok sariz kargatua hasi du uda

Udara nahiko kargatua hasi du Anartz Olano pilotari gazteak, baina emaitzak onak izan dira. Elgetako txapelketan 4 terdiaren barruan, Tolosaren kontra 22 eta 14 finalerdia galdu egin zuen, Urretxun frontoi osoan buruz buru, 18 eta 11 irabazi zion Mujikari eta Usurbilko finalean, binaka eta Tolosa lagun zuela 22 eta 18 irabazi. Hemen saria izan zuen gainera finalean tanto hoberenari emandakoa. Beraz, sariz kargatua hasi du udara, lan onaren ondorio. Segi lanean eta emaitzak etorriko dira.

ARANO

OSPAKIZUNAK → HERRITARREN EKIMENAK ERANTZUN ONA IZAN DU

Sanferminetan iritsi dira Sanjuanetako sardinak

VIII. Artisau azoka egingen da Santiotan

Maidar ANSA

San Juan bezperako ohitura bihurtu zen sardina jatea egitea, baina aurtengoan San Fermi-netan iritsi dira sardinak herrira. Atzerapenak atzerapen, giro ederrean egin zen festa eta 35

lagun inguru bildu ziren herrira sardinak jatera. Herritarren borondatez sortutako festa da honako hau. Mairtenetarrek sardinak egin, Ezkerren-bordakoen gazta, ... dudarik gabe festa herrikoi eta naturala.

Santiotako

VIII. Artisau azoka

Azken urteetako ohitu-

rari jarraiki artisau azoka egingo da hilaren 23, larunbata eguerdiz. Dakizuenez, artisau azoka honetan herritarren parte-hartzea behar-beharrezkoa dugu festa aurrera ateratzeko. Badakigu herrian artista asko ditugula, marrazkilari, zeramikagile, gaztagile, sagardogile, ... parte hartu nahi dutenek abisua eman Ainhoari



ARTXIBOKO ARGAZKIA

Herriko eskulangileen lanak ikusgai izango dira.

645 727 765 telefonora deituta posturako kartela eduki dezazuen.

Tortila lehiaketa ere martxan

Artisau azokako egun berean, tortila le-

hiaketa egiten dela eza-guna da guztientzat. Guztien partehartzea eskatu dute festa batzordetik eta tortilak San Roke elkartera eramateko 11:45 baino lehenago.

BAZTAN

UDALA → FUNTZIONAMENDUAN ALDAKETAK

Udal batzarrak bi hilabetetik behin eginen dira

Informazio batzordeei indar gehiago eman nahi zaie

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 5eko udal batzarrean erabaki zuten hemendik aitzinera udal plenoak bi hilabeteko izanen direla eta ez orain artean bezala hilean behin. Komisio informatiboei indarra ematea da erabaki honen helburua, herritarren parte hartzea bultzatzearekin batera. Horregatik arratsaldez

izanen dira.

Akordioak aldeko zortzi botu jaso zituen, Bilduren bortz, Baztango Ezkerraren bi eta Nabairen bat. UPN alderdiak ohiko plenoak 15 egunero egiteko proposatu zuen, herritarren eskaerei azkarrago erantzuteko. Horrez gain ortziral goizetan izateko ere eskatu zuen eta lan orduetan, horrela beharrezko ez diren gastuak sahiesteko.

Garbiñe Elizegi, Mikel Ortega, Florentino Goñi eta Pello Iriartek osatuko dute Gobernu Batzardea, astero elkar-



ARGAZKIA: ONDIKOL

Iturriotz berreskuratu dute Almandozen

Duela mende bat baino gehiago Belateko bidea erabiltzen zutenek bazuten Iturriotzeko ur garbi eta freskoaren berri. Azken hamarkadetan Belaten egin diren lanen ondorioz galdu zitekeela bazirudien ere, Iturriotzeko iturria berreskuratu dute Almandozen. Luis Roldan alkatearen ekimenez (argazkian, iturri aitzinean), eta musutruk lagundu duten Canteras Acha, Hormigones Navarra eta Baztangoiza eraikuntza enpresei esker inoiz baino itxura hobea du iturriak.

tuko dira ortziral goizetan 11:30ean. Mikel Ortega eta Iñigo Iturralde izanen dira lehen eta bigarren alkateorde.

Eraso arrazista salatu du Udalak

Uztailaren 3tik 4rako gauean, Elizondoko Merkatuzelaiko baskulan izan zen eraso arra-

zista, gizarte lanetako langileek erabiltzen zizuten mahai eta aulkak errez eta ijitoen kontrako pintadekin. Baztango Udaletik eraso hori gaitzetsi eta salatu nahi dute. Inongo eraso arrazista eta diskriminatzaileak ez dutela onartuko erran dute udaletik.

Bide batez udalak erasotzaileei eskatu nahi die, herritar guztienganako errespetua edukitzeko. Baztango Udale Gobernutik errespetuan oinarritutako elkarbizitza bultzatuko dutelako eta horrelako erasoak gerta ez daitezen lana eginen dutela gaireratu dute.



GRUPO TANATORIO TALDEA
IRACHE
MALDAERREKA S.L.

LEKUNBERRI
BERA | SAN JOSE
ELIZONDO | BAZTAN

LEITZA		948 61 09 64		(SALAKO TELEFONOA)
LESAKA		948 62 75 77		(SALAKO TELEFONOA)
BETELL		948 51 34 67		(SALAKO TELEFONOA)
DONEZTEBE		SAN PEDRO		948 45 19 14 (SALAKO TELEFONOA)
ELIZONDO		BAZTANDARRA		948 58 02 50 (SALAKO TELEFONOA)

24 ORDUKO TELEFONOA
948581959 | 948637404

| TRASLADOAK IRUÑA, DONOSTI ETA IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA
| LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK, ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

BAZTAN

SAN LORENTZO BESTAK → ABUZTUAREN 9TIK 13RA

Euskal kantuak eta haurren herri kirolak Zigako besten egun handian

Abuztuaren 9ko ezkil jotzearekin hasiko dira bortz eguneko bestak

19:30ean dantzaldie Agerralderekin. **21:30ean** mutil-dantzak, jolaldun eta txalaparta. **22:20ean** afarie frontonian. **00:30ean** dantzaldie Agerralderekin.



ORTZEGUNA 11

Herritarren egune

09:00etan dianak. **10:00etan** gazte gosarie Ostaturarrean. **12:00etan** gazteak etxe etxe, trikitixarekin. **13:00etan** haurren dantzak. **16:00etan** haur jokuak. **20:00etan** dantzaldie Agerralderekin. **22:00etan** andre afarie (nahi izatera, senarrak ere etortzen ahal dira). **00:30ean** dantzaldie Agerraldekin. **06:00etan** talo jatea.

17:30ean pala txapelketa. **22:00etan** afarie frontonian. **00:30ean** dantzaldie Agerralderekin. **05:30ean** marmitaketa.



ARGAZKIAK: ARANTXA GAMIOK UTZIAK

Goitian, Zigako gazteak ezkil jotzeari adi. Erdian, dantzan eta behegian, zikiroa prestatzen.

LARUNBATA 13

Zikiro egune

09:00etan dianak. **14:00etan** zikiro-jatea Bixentek alaitua. Txartelak maiordomuek salgai. **20:00etan** dantzaldie Obaneuke taldearekin. **22:30ean** herri afarie. **00:30ean** dantzaldie Obaneuke taldearekin. **05:00etan** gaixoa

die Obaneuke taldearekin. **05:00etan** gaixoa

gu. **06:30ean** kazerolada.

ASTEARTEA 9

Mezpera

20:00etan suziria eta ezkil-jotzea. Herriko trikitilaria karririk alaituko dituzte. **21:30ean** Baztan-zopak. Txartelak maiordomuek salgai! **00:30ean** Gaupasa Agerraldekin. **06:00etan** zinger jatea.

ASTEAZKENA 10

San Lorentzo egune

09:00etan dianak. **11:00etan** Meza Nagusia. **12:00etan** luntx. **13:00etan** euskal kantuek. **18:30ean** haurren herri kirolak.

ORTZILERIA 12

Txapelketen egune

09:00etan dianak. **11:00etan** Mus txapel-

ASTELEHENETIK ORTZEGUNERA
09:30etik 17:00etara
ORTZIRALA
09:30etik 14:00etara
17:00etatik 20:00etara
LARUNBATA
09:00etatik 14:00etara

• ARATXE AZHIZUNA	27 €K	• ARATXE-ZANGAR	7 €K
• ARATXE TXULETA	13 €K	• ARATXE GISATUA	6 €K
• ARATXE BIRIBILKIA	10 €K	• ARATXE TXURRASKOA	6 €K
• ARATXE XERRAK	10 €K	• ARATXEAREN HARAGI TXIKITUA	6 €K

Santiago, 56B - behea • 31700 ELIZONDO • T. 948.452.486

SOULE

Itxeta antea
Tfn. 948 452 486
Itx. 928 814 583
AMAJUR

MENDIA

Itxeta antea
Tfn. 948 452 486
Itx. 928 814 583
AMAJUR

BAZTAN

ISTRIPUA → KAMIOI BATEK SU HARTU ZUEN

Belateko tunela uda osoan itxia egon daiteke

Uztailaren 8an gertatu zen istripua, Iruñalderako irteeratik 300 metrora eta trafikoa lehengo bidetik dabil

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 8ean kamioi batek su hartu zuen Belateko tunelaren irteeran Iruñerako norabidean. Eragindako kalteak handiak izan ziren eta Nafarroako Gobernutik jakinarazi dutenez, aste batzuetako lana ekarriko du konponketak egiteak. Data jakin bat zehaztu ez duten arren, denboraldi batez itxia egonen dela aurreikusi dute.

Kamioia 17:00ak aldera hondatu eta su hartu zuen, tuneletik ateratzeko 300 metro falta zituenean. Kamioi gidaria ospitalera eraman behar izan zuten kea arnasteagatik. Irteeratik hurbil egoteak azkartu egin zuen gidariaren artatzea baita larrialdietako plana martxan jartzea ere. Biharamonean teknikoak etorri ziren Belatera eta kalteak aztertu zi-

tuzten. Dirudenez suak asfaltozko tela, kontrolerako instalazioak, larrialdietarako telefonoak eta errepidea kaltetu dituzte gehienbat.

Tunelako konponketak egiten diren denboran, Iruñera joateko Belateko bide zaharretik edo A-15 errepidetik joan behar harko da. Hasieran, ibilgailu astunak debekatua izan zuten N-121-A errepidea erabiltzea, baina abudo debekua kendu zuen Nafarroako Gobernuak. Aspaldiko partez, Belate mendateko bihurguneak eta behelainoak sufritu beharko dituzte gidariak.

Turismo bulegoa zabalik

Uztailaren 7an, ortzeguna, zabaldu zituen atatak Elizondoko Turismo bulegoak. Aurtengoan ere, Etnografia museoan kokaturik egonen da eta urriaren 6ra arte irekia egonen da.

Astelehen eta asteartetan 09:30etik 13:30era eta 16:00etatik 18:30era egonen da zabalik. Asteazkenetik ortziralerara 09:30-14:00 eta 16:00-20:00 irekiko dituzte atak. Asteburuetan 10:30-14:00 eta arratsaldetan 17:00-20:00.



ARGAZKIAK: ONDIKOL

Kamioi batek su hartu eta kalteak eragin zituen Belateko tunelean.



Instalazioak

**IGOGAILUEN INSTALAZIOA
AROTEGI METALIKOA
TOLDOAK**

Santiago, 71
31700 ELIZONDO
T. 948 580 166
F. 948 452 557
M. 619 424 999 - 649 699 820

KIROLA → UZTAILAREN 10EAN ABIATUKO DA

ESAITen XI. Mendi Martxak Amaiurren izanen du irteera

Baztandarren Biltzarraren egunean aurkeztuko da

TTIPI-TTAPA

Zabalik dago ESAIT-en XI. Mendi Martxan izena emateko epea. Amaiurren hasi eta Lizartzan akituko da zortzi eguneko mendi ibilaldia, *Hamaika pauso selekzioak lortu arte. Inposaketarik Ez!* lelopean. Uztailaren 30ean, larunbata, ekinen zaio lehen etapari Amaiurren. Bertan eginen da hasierako ekitaldia ere.

Honako etapa hau-ek izanen ditu.

Uztailaren 30ean, Amaiur-Urdazubi: Amaiur-Alkurruntz-Otsondo-Urdazubi.

Uztailaren 31n, Urdazubi-Sara: Urdazubi-Zugarramurdi-Atxuri-Sarako lezea-Sara

Abuztuaren 1ean, Sara-Lesaka: Sara-Larrun-Bera-Lesaka

Abuztuaren 2an, Lesaka-Oiartzun: Lesaka-



ARGAZKIA ETA TESTUA: MAITE OTEIZA

Mendiko belar makinaren erakusketa egin zen Elbeten

Uztailaren 2an, Elbeteko Lekuederren, mendiko belar makinaren erakusketa izan zen. Baserrietako belar lanek ikaragarriko garrantzia izanta ere, eremu haue- tan erabiltzen diren tresnek ez dute bertze inguru zelaiagoetan erabiltzen diren makinaren aitzinamendurik izan. Hori dela eta, belar gutiago lortzen da eta auni- tzetan esku tresnak erabili behar izaten dira lanak egiteko, makina aproposen gabeziak behartuta. Ondorioz, eremu hauetako baserriko lana gogorragoa da bertze toki batzuetakoekin konparatuz gero eta maiz istripuak gertatzen dira, maldetan makinak erabiltzea arriskutsua baita. Erakusketa honen helburua ma- kina berezi hauek baserriarren artean ezagutzera ematea zen. Erakustaldi hau lehenagotik, Asturiasen egin zena, oraingoan ITG Abeltzaintza, Nafarroako Go- bernaia, UPNA/NAUP, eta Espainiako Ingurugiro eta Nekazaritza Ministerioaren eskutik antolatu zen.

Agina-Aiako Harria-Ar- diturri-Oiartzun.

Abuztuaren 3an, egun osoko aldarrikapen jaia Oiartzunen.

Abuztuaren 4an, Oiar-

tzun-Goizueta: Oiar- tzun-Oialeku-Artikutza- Goizueta.

Abuztuaren 5ean, Goi- zueta-Leitza: Goizueta- Mandoegi-Urepel-Lei-

tzalarrea-Leitza.

Abuztuaren 6an, Lei- tza-Lizartza : Bukaera ekitaldia eta bazkaria.

Informazio guztia www.esait.org.

KIROLAK

Nafarroako 2. mailako aizkolari txapelketaren kanporaketa igandean Elizondon

TTIPI-TTAPA

Uztailaren 24an, igan- de arratsaldeko 19:00etatik aitzinera jokatu da Elizondo- ko Iriarte pilotaleku- an (Laxoa plazaren ondoan) Nafarroako bigarren mailako aiz- kolari txapelketaren kanporaketa.

Partehartzaileak Ser- gio Mandazen (Gar- ralda), Patxi Minde- gia (Zubieta), Juan Jose Erdozia (Etxarri Aranatz), Xabier Min- degia (Beintza Labai- en), Jesus Etxeberria (Beintza Labaien), Jo- se Antonio Loiarte (Zubieta), Arkaitz Ola- no (Leitza), Raul Cas- tro (Urroz) Julien Ka- ñameres (Berriozar), Asier Pellejero (Are- so) eta Iban Resano (Dorrao) izanen dira, beraz, eskualdeko aizkolarien ordezkari- tza zabala izanen da. Moztu beharreko en- borrak: bi kanaerdiko eta 60 ontzako bat.

FINALA IRAILAREN 25EAN UHARTEN

Lana lehen bukatzen duten borts aizkola- riek zuzenean finale- rako txartela lortuko dute. Finala Uhart- lruñean jokatu da irailaren 25ean, arra- tsaldeko 17:30etik atzinaera. Kanporaketan azken postuan sailkatzen den aizkolariak, ber- riz, maila galduko du.

ANTXITONIA
Etxeak

Agina-Aiako Harria - Oñateko Harria - Oñateko Harria

Barria Iturre 16, Elizondo • 948 591 807 • 948 581 853
koral@antxitonia.com • www.antxitonia.com

MENDI
ostatua

Santiago 25
948 590 312
ELIZONDO

PPSOE,
Euskal
Telebista
digitala
Nafarroan
orain!

Barria srosi taldea

CARLOS GARAIKOETXEA ETXENIKE
abokatua

Santiago 39 20 • ELIZONDO
T. 948 581 441 M. 630 364 810

ZUGARRAMURDI

GIZARTEA → CEDERNA ETA MUSEROAREN ESKUTIK

Ordenagailua erabiltzen ikasteko ikastaroa

‘Informazio eta komunikaziorako teknologia berrietara hurbil zaitetz’ izenburupean

Margari eta Koro

Uztailaren 4etik hnat Urdazubi eta Zugarramurdiko 11 lagun ordenagailuan ikasten ari dira. Informatikari buruz deus ezagupenik ez dutenendako da ikastaro hau, eta informatika orokorra, internet eta posta elektronikoa ikasiko dute.

Ikastaroaren izenburua *Informazio eta Komunikaziorako Teknologia Berrietara hurbil zaitetz* da, eta hiru astez astelehenetik ortziralerara emanen da, bi oron eta erdi egun bakoitzean. Cederna-Garalur elkar-atea eta Sorginen Museoa izan dira antolatzaileak, eta ikastaro emalea Elizondoko Eskiz informatika dendakoko Joxemari Arraztoa da.

Hasieran, bi herri hauetan eskaera handia sortu zen eta 20 bat lagunek izena eman zuten. Denak batera egitea posible ezenez, bi



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Elizondoko Eskiz informatika dendako Joxemari Arraztoa ari da ikastaroa ematen.

txanda antolatu dira. Hurrengoak, udazkenean edo neguan izanen da (eta hura ere zerotik hasiko da). Jende gehiagok interesa baldin badauka, Sorginen Museora dei dezala: 948 599 004 / 948 599 223.

MARKETIN ETA GIZARTE SAREAK

Bertzalde, heldu den urriaren 23 eta 24rako bertze informatika ikastaro mota bat antolatu da: *Marketina eta gizarte sareak*, turismo sektoreko establezimien-

duetako jabe eta langileei zuzendua. Honetarako gehienez 10 lagun onartuko dira, eta izena emateko telefono hauetara deitu behar da 948 599 004 / 948 599 223, edo info@zugarramurdi.es helbidean.



Heriotza

Julia GORTARI

Teltxeiko Julia 96 urterekin hil da

Gure herriko biztanle xaharrenari agurra eman diogu: gan den ekainaren 30ean Teltxeiko Julia hil zitzaigun.

Julia Aramendiko bordan sortu zen duela 96 urte, eta gazte-gaztetik Frantziakoan zerbitzitzen egon zen. Gero Florentziokin ezkondu ondotik Teltxegirat

bizitzera etorri zen. Bera arduratzen zen Teltxegia ondoan dagoen Arrosarioko Amabirjinaren kapera zaintzeaz, beti garbi eta lorez betea kontzen baitzuen. Horretaz gain Zugarramurdin jarri ziren lehenbiziko Landa-etxeetarik bat berea izan zen. Buru ona zuen Juliak, eta duela lau urte Zugarramurdin egin zen bilketa etnografikoan parte hartu zuen, bere gaztetako bizipenak kontatuz, denbo-

ra bateko etxeko lanak, xalboina nola egiten zen, arropa garbiketarako, ezkontza... eta gaur egun ezagutzen ez ditugun hainbertze istorioren berri emanez. Bizitza luzea eta ongi profitatua izan zuen.

Juliaren ondotik Goibereko Maria dugu herriko xaharrena, 94 urte baititu. Orain Maria Zugarramurdiko pertsona inportanteenetariko bat bihurtu zaigu, beraz, ongi zaindu behar dugu.

MONTXO OSTATUAK

Dantzarinetatik 2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAL-BORDA • URDAZUBI
Egunero martx 10:30etik 02:30ora.

ANZABAL INMOBILIARIA

- Zuzen Anzabal Auzo, Heriotza, Iritze eta Nitzte enpresak
- Lan-eremuetatik
- Berrera eta Arropen Sareak
- Alkoldaritza Sareak
- Eremu Dantzarinetatik
- Inbentario
- Berrera, Borda, enu, etab... salmenta eta alkatua
- Zuzenak

Santiago, 15 • ELIZONDO • T.F. 948 580 804
anzabal@anzabal.com • www.anzabal.com

OSPAKIZUNAK → LAUGARREN EDIZIOA

Burdinaren Eguna ospatuko da agorrilaren 6an



Pilotaren Unibertsoa jaialdiak ere egingen dira

TTIPI TTAPA

Burdinaren Eguna-ren laugarren edizioa egingen da agorrilaren 6an Itsas-Begia Elkartean, udalaren eta Bertizko Partzuergo Turistikoaren ekimenez. Duela bi urte bezala, txalupaz Bilbotik Donibane Lohizunera irakoak erriko dute minerala, Urdazuri errekan goiti Azkaineraino eta hemendik bidez bide Urdazubiraino. Egitaraua 10:00etan hasiko da, artisautza azoka irekiko baita. 12:00etan burdin mineralaz zamatuta datozen idiak ailegatuko dira monasteriora. 12:30ean burdina urrezko txanponengatik trukatzeko ekitaldia egingen da. Ondotik, Itsas-Begiko ordezkaritza batek solasaldia eskainiko du. 14:00etan zikiro jatea izanen da. Bazkal ondoan ikuskizuna eta dantzaldia izanen dira.

Burdinaren Egunaz gain, Pilotaren Unibertsoa jaialdiak egingen dira aurten ere, hiru egunez, 19:00etan hasita. Uztailaren 30ean, pilota erakustaldiaren ondotik pintxoak banatuko dira. Abuztuaren 20an, erakustaldiaren ondotik patata tortilla lehiaketa egingen da eta abuztuaren 27an paelлада.

"Merezi duzu" Nomina Zerbitzua

www.ruralvia.com

NOMINA HONEKIN DENAK DIRA ABANTAILAK

ELUREN NOMINA RURAL KUTXAN KOORDINATZEN DUTEN GUZTIEN BAZTUZITE JADA BALENITZA. PIRANTZARIO BAKAR HAUEN.

- Nomina Kontua berriz ireki gabe.
- Nomina-erretiraketa dohaia.
- Nomina mugatuta berriz ireki gabe.
- Zordunak eta kreditu txarretan jaulkiper kuota gabe eta urteko kuota %100 eta %50 arteko beharpenak hurrenez hurren erretiraketa egindako arabilpen mailaren arabera.
- %10eko deskontua Etxebankia, Banka eta Isilgu Abuztuaren.
- Zordunak bidezko diru-eraketak dohaia eta mugatutako balantza karga edozein erakundearen bidez kudeatzen.
- Doko kudeaketa, erretiraketa zuzen kontuak zordunak.

HELBERERATU ZURE NOMINA RURAL KUTXAN ETA ONURATU ABANTAILA GUZTI HAUEZ.

DEN-DENA MEREZI DUZU

SENPERE

KIROLA → KANTAURI ETA MEDITERRANEOA LOTUZ

Donibane Lohizune eta Banyuls artean ibili dira Senpereko txirrindulariak

800 kilometra pasa egin dituzte Lapurdi eta Katalunia artean

Franck DOLOSOR

Kantauri Itsasoa eta Mediterraneo lotu dituzte berriki Donibane Lohizuneko kirol taldean dabilzan txirrindulari senperrak. Pirinotian barna iragan den 6 eguneko abenturan, denorat 820 kilometra egin dituzte bizikleta gainean eta bidean Tourmalet, Soulor eta Portillon bezalako mendateak hupatu dituzte. Urtero Baiona eta Luchon arteko bidea egiten dute bainan aurten zerbait berezi egitea pentsatu zuten urtean txirindulaz 4.000 kilometra egiten duten lagun hauek. Pentsatu eta egin! Udan mundu osoa Frantziako itzulari begira dago, Senpereko txirrindulariak ere bai, bainan ikusle izatetik aktore izaterat pasatu nahi izan dute berren erranetan «kirola osasuntsua baita eta ez baita lagun giroa bezalakorik». Eguzkia

lagun, sei eguneko ibilaldian harremanak sendotu dira 13 abenturazaleen artean. Burua irudi ikusgarritz betea eta indarberiturik etxeratu dira. Horietan ziren zombait senperrak, emazte bat ere bai eta laguntzaile bat kamiunez ibili dena gibeletik kirolzale tal-



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR
Txirrindulariak kontent.

dea laguntzeko eta babesteko... batzuek bolantea bizikletako giderrak bezain ongi eta xuxen atxikitzen baitituzte. Jo aintzina!

Euskaltzaleen hitzordua Larraldean

Gemma Sangines sikologoak tailer berezia eskainiko du Amotz Larraldean uztailaren 29 eta 30ean euskaraz eroso noiznahi eta nonahi sentitzeko. Helburua da hizkuntza gatazkak arrakastaz kudeatzeko tresnak eskuratzea, euskaraz aritzeari deserosotasuna murriztea eta gusturat egotea.



ARGAZKIAK: FRANCK DOLOSOR

Bertsuzale senperrak Ahetzen

Uda huntan 30 urte betetzen dira Mattin Trecu Ahetzeko bertsulariaren ahotsa eta irria isildu zirela. Urte-muga behar den bezala ospatzeko eta bere izena eta izana gogoratzeko omenaldia egin zen uztailaren 10ean bere sorterrian, gure auzo herrian, eta hantxe bildu ziren ere Senpereko zombait bertsuzale. Goizeko mezaren ondotik, Mattinen oroitarriaren ondoan plaka bat estrenatu zen oroitarazteko eta jakinarazteko Mattin Kokin nor izan zen. Mattinen semeak Panpilik eta Xanpun zenaren alargunak estrenatu zuten oroitgune hau. Preseski, heldu den urtean 10 urte beteko dira jadanik Xanpun bertsularia, sortzez senperrak zena, zendu zela. Hura ere omenduko dute doike. Agian ba! Ahetzen giro paregabeaz gozatu ahal izan zen: bertsutan Txomin Ezpondak eskatu zuen oroitzapenak irautea «Mattinen oroitarria usteldu arte», Mattin eta Xalbadorren itxura duten ziganteen ibilaldia preziatu zen eta arratsaldeko bertsu saioan taula gainean agertu ziren Imanol Lazkano, José Luis Gorrotxategi, Jean Louis Hariñordoki Laka, Mixel Aire Xalbador, Odei Barroso eta Ekhi Erremundeguy. Mattinen omenaldi hunkigarrian Mari bere andre zenarentzat ere zombait ohorezko hitz entzun ziren. Mari Olhandegi senperrak zena sortzez eta ezagutu dugunek ezin dugu ahantzi sorterriarri zoin atxikia zen.

LESSEING ETIENNE
CENTRE DE LA MAIRIE
CARRA

ARMUA JAITEKIA
T. 948 63 54 58

ttipi-ttapa
aldizkari eberrak bidaltzea nahi baduzu, deitu telefono honetara.
(0034) 948 63 54 58 - www.ttipi.net

- Higo Euzko Herria 37€
- Europa 10€
- Berria, 1500000-000 31€
- Arrieta 20€
- Auzola 12€
- Ipar Euzko Herria 20€
- Landa 15€

KIROLA → HERRIKO 20 KORRIKALARI IZAN ZIREN

Sara Korrikak Mont Blanc-eko Maratoian parte hartu du

2.000 kirolarien artean 49. izan zen Fabrice Latapy, irabazleak baino ordu bete gehiago behar izan zuen

Joanes GARCIA

Joan den ekainaren 26an, Sara Korrika elkarteak 23 kideetatik 20 ek Mont Blanc gailurreko maratoian parte hartu zuten. Izenak dioen bezala, lasterketak 42 kilometroko luzera ditu, Chamonixetik Planprazera, hainbat lepo igan beharrez. Bi mila lasterkalari abiatu ziren goizeko 07:00etan eguzkipean. Abenduan abiatutako ametsa bete dute saratarrek. Alpeetako bazter zirrargarriak bisitatzeko asmoarekin, bezperatik ailegatu ziren saratarrak.

Lasterketa benetan ona egin dute. Horra emaitza esanguratsuenak: Fabrice Latapy 49. (irabazlearengandik ordu batera), Philippe Vaque 80. (ordu 1 eta 13 minutara), Claude Etchegaray 232. (ordu bat eta 48 minutura), Benat Saint Martin 335., Daniel Iramuno 358. Aguxtin Indart 374. eta Jean Imaz betearnoaren 1729. tokia.

Azpmarratzekoa da ere Ezpeletako Kaskoen lasterketan lorturiko bi emaitza bikainak. 14 kilometroko lasterkaldian Pantxo Saint Martin



ARGAZKIA: JOANES GARCIA

Mont Blanc-eko Maratoian parte hartu zuen Sara Korrikako taldea.

juniorrak 37. bukatu du eta 7 kilometrokoan Ximun Garcia Basurko izan da garaile. Senpereko bestetako lasterketan ere emaitza ederrak izan dira Jaksek 5. bukatu duelako, Ximunek 6. eta Pantxok junior mailan irabazi duelako. Aupa gazteak.

GR8 ibilaldien eguna

Uztailaren 10ean, zortzigarren urtea da, GR8 ibilaldien eguna Saran burutu dutela. Lau ibilaldi proposatuak ziren: 25 kilometrokoa Kanbotik, 18 kilometrokoa Ezpeletatik, eta 8 kilometrokoa Azkaine edo Senperetik. Nahiz eta lanbroa eta xirimiria izan, hamarka ibiltarik parte hartu zuen.

Etzeko lanetarako sustengu orduak

Ikasturtea bukatu da eta berarekin batera herriko etxeak proposatzen dituen 'etzeko lanetara-

ko sustengu orduak'. Bolondres batzuk, 3 eskoletako haurrei, laguntza ekarri die arratsero eskolatik landa 5etatik 6tara. Hori haurtzaindegiko lokaletan egin da. Laguntzaile horiek eskertzeko zintzur bustitze bat eman da. Pierre Arrotzarrena kontseilariak ongi etorria eman die eta haien lana goraiatu. Milesker: Thérèse Laplacette, Marie-Hélène Bergara, Marie-Françoise Bidet, Annie Pouyet, Bénédicte Kechana, Joana Guerendien eta haurtzaindegiko ardurdunak diren Martina Goyetche eta Maider Olassori.

Udako animazioak

• **Uztailaren 21ean**, ortzegunarekin, 21:30ean elizan kontzertua Saiberri taldearekin.

• **23an** larunbatarekin, egun guztia errebotean Pottokaren Besta. Goizean Pleka trinketean Xoko txapelketaren

finala.

• **24an** igandearrekin, 21:00etan errebotean euskal dantzak.

• **25ean** astelehenearekin, 21:00etan errebotean xisterako pilota partida.

• **26an** asteartearrekin, 21:00etan errebotean euskal kirolak. 20:00etan Sarako lezeetan Saguzarraren gaua: mintzaldi eta behaketa.

• **28an** ortzegunarekin, 21:30ean Santa Katalinan Euskal Kantuak Atsulai taldearekin.

• **Uztailaren 30etik abuztuaren 7a arte**, Lur Berri gelan, 10:30etik 7ak arte Eskuen Lana elkartearen erakusketa.

• **31n** igandearrekin, egun osoan Kermeza: meza, pilota partida, bazkaria, euskal dantzak eta jokoak

• **Abuztuaren 1ean**, astelehena, 21:00etan errebotean Xisterazko Pilota Partida

• **2an** asteartearrekin, arratseko 9.30etan errebotean euskal kirolak.

OSPAKIZUNAK

Bigarren

UsoPOP festibala agorrilaren 27an egingen da

Joanes GARCIA

Agorrilaren 27an UsoPOP festibalaren bigarren edizioa ospatuko da Lizarrietako lepoan. Lehenera 400 bat pertsona hurbildu ziren gune izugarri batean musikaz gozatzen.

Gaualdia arratsaldeko 6etan hasiko da haurtzako animazioarekin. Oihanean ibilaldi bat egingen dute Xan Errotabehere ipuin kondalariak lagundurik.

Arratseko 7etan guñeak atek idekiko dituzte. Bertze behin ere Euskal Herriko musika panoramako artista garrantzituak eta berritzaileenak etorriko dira: Mursego (pop experimental) eta Mobydick (folk).

Baina kanpoko taldeak ere gonbidatzen dituzte: *Francois and the Atlas Mountain* eta afrikar ikutuak dituen haren elektro-popa, frantziar stoner rock talde bikain bat *Mars red sky*, *The suicide of western culture* Bartzelonako elektro talde ikusgarria. Gaualdia bukatzeko *Spt* eta *Cindjrella* musika jartzaileen arteko lehia dantzagarria izanen da. Kontzertu arteak Arantxa Lannesek dantzaz beteko ditu. Gunean jaki gozoak eta edatekoa izanen da eskuragai. Uda bukatzeko manera ezin hobea UsoPOP. Sartzea 9 euro gostako da.

EZKONTZAK

Moi Gogorza Jauregi eta **Monica Etxeberria Balda**, Ezkurakoak, uztaillaren 9an Ezkurran.

Nikole Galardi Zapirain eta **Joseba Andoni Lizarralde Iraola**, Oiartzun eta Usurbilkoa, Artikutzan, uztaillaren 9an.

Iker Zabala Salaberria eta **Naiara Juantorena Eskudero**, Goizuetakoak, uztaillaren 9an.

Iñaki Juanena Santesteban eta **Edurne Bertiz Telletxea**, Urrozkoa eta Beintza-Labaiengoa, Labaienen uztaillaren 2an.

Igor Ugalde Salazar eta **Gurutze Pikabea Iribarren**, Azpeitia eta Arantzakoa, Arantzan uztaillaren 9an.

Blas Wilson Goizueta Stoner eta **Maidor Goizueta Sarratea**, Mont Rose (Colorado-EEBB) eta Lesakakoa, Lesakan uztaillaren 2an.

Oihan Perez Artieda eta **Enara Iribarren Bertiz**, Berakoa eta Etxalarkoa, Etxalarren uztaillaren 2an.

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

SORTZEAK

Julen Intxausti Urrea, Beintza-Labaiengoa, ekainaren 30ean.

Xiker Sein Ardanza, Lesakakoa, uztaillaren 6an.

Maya Seminario, Sarakoa, ekainaren 27an. maiatzaren 3an,

Norbaitek bere datuak sortze eta ezkontzen atalean agertzea nahi badu, 948 635458 telefonora deitu beharko du.

HERIOTZAK

Julia Gortari Itzea, Zugarramurdikoa, ekainaren 30ean, 96 urte.

Claudia Etxenike Adansa, Zugarramurdikoa, uztaillaren 6an, 79 urte.

Joxe Martin Eratsun Etxeberria, Goizuetakoa, uztaillaren 10ean, 81 urte.

Conchita Matxikote Mikelperizena, Berakoa, ekainaren 29an, 83 urte.

Angeles Viterbo Vega, Lesakakoa, ekainaren 29an, 91 urte.

Castor Rekarte Gortari, Erratzukoa, ekainaren 30ean, 72 urte.

Maria Victoria Aranburu Lasaga, Doneztebekoa, uztaillaren 2an, 95 urte.

Rita Alberdi Vallés, Elizondokoa, uztaillaren 4ean, 98 urte.

Joaquin Goikoetxea Azkona, Berakoa, uztaillaren 8an, 91 urte.



**Genaro
ALZATE OZKOIDI**

*Umorez eta alaitsu
egoten ginen elkarrekin,
eta oroitzapen ahaztezin horiek
beti geldituko dira gurekin.*

ZURE ETXEKOAK

Beran, 2011ko ekainaren 22an



Oxkar BARRENETXE

*Ile hori, begi urdin,
izaera alai, ta solas humil.
Bihotz zabal, beti atsegin,
irria expainetan, lagun fin.
Ttiki ttikitatik ikasle,
gaztetan, langile, eta bestazale.
Kantu-dantzetan aditu,
zurekin dugu aunitz bizitu.
Izar bilakatu zara,
eki liluragarri ederra,
bihotzean beti toki orotara,
altxor, zinez on ta maitakorra.*

IGANDETAKO TXUPITEROAK

Rekordatorioak

egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua*

KULTURKARI + Anditzora 12. Etxeluz
Tfnoa: 941 83 54 58

Gaztetan Beti Gazte eta Real Union taldeetan futboleant aritu zen Jose Luis Altzugarai, 'Zikiro' lagunentzat. Baina gero palista profesionala izan zen hamabi urtez

Bilbon, «palarik garairik onenean». Bilboko garai hartatik, Marino Lejarreta txirindulari handia pisukide izan zuela gogoan du eta «betirako laguna» duela berekin. Behin pala

utzita, ustekabean, Beti Gazteko nesken futbol taldea entrenatzen hasi zen, duela 23 bat urte eta geroztik han-hemen entrenatzaile aritu da, txartelik ikusi gabe.

Joxeluis «Zikiro» ALTZUGARAI | Futbol entrenatzailea 23 urtez

«Txartelik inoiz ez ikusteko sekretua arbitroaren lana errespetatzea da»

A. AROTZENA | LESAKA

Beti Gazteko neska urtebetez entrenatu eta Añorgaren eskaintza jaso zuen Zikirok. Bi urtez aritu zen, eta bietan Espainiako liga irabazi zuen. «Hagitz talde ona zen, Gipuzkoako selekzioa zela erraten ahal da». Añorga utzi eta Bortziriak taldea sortu zen lehenik, Lesaka, Arantza eta batez ere Berako neskekin: «Bi urte izen horrekin egin genuen eta gero Gure Txokoa taldea izan zen. 12 bat urte egin genituen, neska gazte-gazteekin hasi, zerotik, eta lau aldiz irabazi genuen Gipuzkoako liga, Gipuzkoako kopa irabazi genuen behin, liga nazionalen ere hirugarren izan ginen urte batean, urte politak izan ziren, nere oroitzen onenak ordukoak dira». Talde hartan aritzen ziren Miriam Erkizia, gero Lagunak taldean ariko zena Superligan, «Eduarne Telletxearekin batera Espainiako 18 urtez behe-tiko selekzioan debutatu zuen», baita Ane Bergara ere, «gurekin haurra zela hasi zen eta berak eman ditu urratsik handienak. Espanyolekin Superliga irabazia du». Baina neska handitzen joan ziren, batzuk taldea utzi zuten eta desagertu ere egin zen, «pena handiarekin». Gero, Irungo Mariño taldea ere



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Entrenatzailearen izaera taldean isladatzen dela uste du lesakarrak.

entrenatu zuen, sei urtez. Bilboko Athleticen emakumeen taldea gidatzeko eskaintza ere jaso zuen Altzugarai, baina ez zen ausartu pausu hori ematera: «Lana utzi behar nuen fabrian, Lezaman bizi behar nuen, soldata ere bazen, baina arrisku handia zen. Maila horretan ongi ateratzen ahal da, baina gaizki ere ateratzen ahal da, eta segidan etxera bidaltzen zaituzte».

Emakumezkoen futbola utzi eta Beti Gazteko behe kategorietako mutikoak prestatu ditu

ADIBIDEAK

«Neretzat Guardiola adibide on bat da, eta entrenatzaileak elkar-tzen garenean denok gauza bera erraten dugu. Umiltasuna denaren gainetik eta gero, ematen dituen baloreak: laguntasuna, errespetua... eta bertzea, Mourinho, guztiz kontrakoa da: harroa, dena bera, dena bronka, ez da batere polita. Zer izan behar den eta zer ez den izan behar».

azken urteetan, emaitza bikainekin. «Nik 23 urtez esperientzia handia dut -dio- eta hori mutikoei pasatzen saiatzen naiz. Entrenatzaileak zenbat eta gehiago jakin eta transmititzen jakin, gehiago hobetuko da jokalaria».

Emakumezkoen eta mutikoen futbolaren arteko alderik handiena «fisikoa» dela uste du Altzugarai. «Beharbada, orain aldea murrizten ari da, baina futbola ikusten ere abilagoak dira mutikoak, jokaldia nondik egiten ahal den, noiz bizkarrera pasatu, noiz

hankara... Seguruenik ttitikatik futbola ikusten dutelako, eta ikusiz ere aunitz ikasten da, baita futboleant aritzen direlako da tiki-ttikatik. Teknika aldetik ez dago alderik, badira baloiarekin nahi dutena egiten duten neska ere».

Zikiroren ezaugarri nagusia, dena den, kiroltasuna da. 23 urteotan ez du txartel bakarrik ere ikusi, ez gorrikeri ezta horrikeri ez. «Ez didate ateri eta ez dut uste aterako didatenik ere» dio eta horren sekretua «errespetua» dela dio. «Arbitratzea oso zaila da eta beti errespetu handia izan diet epaileei, ez naiz inoiz sartu bere lanarekin». 23 urteotan beti ez da ados egon epaileen lanarekin baina garbi dauka behin kentzen dizuna hurrengoan emanen dizula eta izaera hori bere taldearentako ere ona dela uste du, «azkenean entrenatzailea nolakoa den, ekipoa ere halakoa izanen da. Entrenatzaile berro eta iskanbilatsua bada, taldea ere horrelakoa izanen da. Nere ekipoguziek hagitz txartel gutti ikusi dute, gehienetan kiroltasunaren saria irabazten dugu. Aurten, kadeteek bi txartel hori bertzerik ez dituzte ikusi denboraldi osoan». Bere ustez, partida aunitzetan pena ematen du futbol zelaira joateak ere.

**TXAPELDUNAK**

ARGAZKIA: DIARIO NOTICIAS

Doneztebe eta Iruñeko pilotariak, entrenatzaile eta agintariekin, sariak banatu ondotik.

PILOTA → LEHEN ALDIZ LORTU DU TXAPELA

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketa irabazi du Doneztebek

Lau partidetatik hiru irabazi zizkion Iruñeko taldeari

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Nafarroako Herriarteko pilota txapelketaren finala jokatu zuten uztailearen 3an Iruñeko Labrit pilotalekuan Iruña eta Doneztebek. Bi herrietako zaleek lepo bete zituzten Labriteko harmailak giro paregabea sortuz. Txapelak Donezteberako bidea hartu zuen lau partidetatik 3 irabazita. Lehenengo hiru partidak irabazi zituzten doneztebarrek eta senior mailako partida jokatu aitzinetik erabakita geratu zen nor izanen zen txapelketa. Doneztebarrek lehen finala zuten Herriartekoan eta sartutako

lehen finalean lortu dute txapela.

Alebinen mailan, Doneztebeko Iker Salaberria eta Iraitz Zubizarretak 18 eta 10 irabazi zieten Mata eta Mariezkurenari. Kategoriako atzelari onena izan zuten aitzinean Doneztebekoek, baina partida bikaina jokatu zuten. Zubizarretak ongi eutsi zion gibelean eta Salaberria gehiago izan zen aitzinean.

Lehenbiziko puntua lortzeak ematen zuen segurtasunarekin, infantil mailan ezustea eman zuten Doneztebeko Unai Telletxea eta Joseba Al-dabek, Espinal-Diaz bikoteari 18 eta 13 irabazi baitzuen. Hasiera berdinduaren ondotik, Iruñekoak aitzinetik jarri ziren 5-11. Baina horagertu zen Telletxea, bere sarko gorrekin eta txapa-

gaineoekin, 13-11 buelta emateko. Bertze bitantok egin zituzten hiriburu-koek, baina ongi irabazi zuen Doneztebek bigarren partida ere.

Jubenilek jokatu zuten hirugarren partida. Doneztebeko Mikel Maia eta Adur Lasa bikoteak 22 eta 13 irabazi zieten Idoate-Larraya bikoteari. Partidu hau erabakigarria izan zen, hau irabazita Doneztebek segurtatua baitzuen txapela. 3-7 irabazten hasi ziren Iruñekoak, baina pilota aldatzearekin, Asegarcerekin aurrekontratu sinatua duen Lasaren eskuin kolpea nagusitu zen, Larrayak zazpi pilota errebotte ingurutik ekarri behar izan baitzuten. Aitzinean, Maiak tantu ederrak egin zituen eta beretzat izan ziren txalorik handienak.

Azken partida, senior mailakoa, izan zen Iruñeko taldeak irabazi zuen bakarra. Ezkurdia-Okiñena bikoteak 22-19 irabazi zion dagoeneko txapela ospatzen ari ziren Beñat Oronoz eta Joseba Madariagari.

Txapeldunen kopa Enrique Maya Iruñeko alkatearen eskutik jaso zuten doneztebarrek eta Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak azpitxapeldunen saria eman zien Iruñekoei. Ora in arte Nafarroako Pilota Federazioko presidentea eta hemendik aitzinean Nafarroako Gobernu-ko kirol zuzendaria izan den Miguel Pozue- ta ere izan zen sari banaketan. Heldu den urtean ere maila onean aritzea espero du Patxi Ordoki Doneztebeko entrenatzaileak.

1970	Altsasu
1971	Oroz-Betelu
1972	LEITZA
1973	LEITZA
1974	Oroz-Betelu
1975	Oroz-Betelu
1976	Larraun
1977	Oroz-Betelu
1978	Larraun
1979	BERA
1980	GOIZUETA
1981	Larraun
1982	Lizarrak
1983	GOIZUETA
1984	Larraun
1985	Lizarrak
1986	GOIZUETA
1987	Iruña
1988	Larraun
1989	Iruña
1990	GOIZUETA
1991	GOIZUETA
1992	GOIZUETA
1993	Iruña
1994	Uharteko Arakil
1995	Lizarrak
1996	Lizarrak
1997	Lizarrak
1998	Lizarrak
1999	Iruña
2000	BAZTAN
2001	BAZTAN
2002	Lizarrak
2003	Lizarrak
2004	Huarte
2005	Lizarrak
2006	Lizarrak
2007	LEITZA
2008	Huarte
2009	Iruña
2010	BAZTAN
2011	DONEZTEBE

SKEET OLINPIKOA → AITA-ALABAK BIKAIN

Espainiako Kopa irabazi du Itsaso Fagoaga lesakarrak

Antonio Javier Fagoaga aita txapeldun izan zen bigarren kategorian



UTZITAKO ARGAZKIA

Antonio Javier eta Itsaso Fagoaga aita-alabak.

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Ekainaren 25 eta 26ko asteburuan Espainiako Skeet Olinpiko kopa txapelketa jokatu zen Mallorcan. Emakumezkoetan Espainiako kopa irabazi zuen Itsaso Fagoagak eta Antonio Javier zazpigarren izan zen sailkapen orokorrean, finalen sartzeko plater bakarrera gelditu zen. Bigarren kategorian, berri, txapeldun izan zen Antonio Javier Fagoaga.

Sanferminak Espainiako selekzioarekin Iruñen kontzentratuak eman ondotik, Itsaso Fagoaga

Esloveniara joan zen jostan den astean, Munduko Kopan parte hartzera.

HERRI KIROLAK → SAN FERMINETAKO SAIOAK

Unai Bertiz sunbildarrak Nafarroako errekorra egin du harrijasotze txapelketan

TTIPI-TTAPA

Iruñeko Sanferminen barrenean egin diren herri kirol txapelketetan eskualdeko hainbat kirolari aritu dira lehian. Unai Bertiz sunbildarrak irabazi zuen uztailaren 8an Nafarroako harrijasotze txapelketa. Bi minutuko txandetan 125 kiloko zilindroarekin, 112,5 kiloko harri kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin aritu behar izan zuten parte hartzaileek. Bertizek lehen postua lortzeaz gain 2004tik Perurenak zuten Nafarroako errekorra hobetu zuen, 6.562 kilo jasoz. Bigarren egin zuen Josetxo Urrutia leitzarrek, 5.787 kilo jasoz. Hirugarren Xabier Ariztegi Santxin etxalar-

tarra izan zen. 5.012,5 kilo jaso zituen Etxalar-koak.

XANTA SOUSA LESAKARRA TXINGA ERAMATEN

Nafarroako emakumezkoen txinga eramate txapelketa jokatu zen uztailaren 11n. Lehen bi postuetan lesakarrak geratu ziren eta txapela Xanta Sousa jantzi zuen, 26 plaza pasaxeak eginez.

Bigarren postua Estitxu Almandozentzat izan zen. Honek 12 plaza baino gehixeago egin zituen. Hirugarren postuan Maika Ariztegi iturendarra sailkatu zen 10 plaza eta erdirekin. Nerea Sorondo beratarrak laugarren izan zen, 9 plaza eta erdirekin.

TXIRRINDULARITZA → JUNIOR MAILAKO ESPAINIAKO TXAPELKETA

Hiru domina eskuratu ditu Irati Otxoteko lesakarrak

Pistako txapelketak jokatu ziren uztailaren 1etik 3ra Tafallan

TTIPI-TTAPA | LESAKA

Irati Otxoteko Arlegi, 17 urteko txirrindulari lesakarrak emaitza bikainak lortu ditu asteburu honetan, uztailaren 1etik 3ra Tafallan burutu den Espainiako junior mailako pistako txirrindulari-

tza txapelketan. Iratik ezin izan zuen urrezko dominarik eskuratu, baina hiru domina lortu zituen, zilarrezkoa 500 metroko lasterketan eta abiadura proban eta brontzea keirin modalitatean.

Hiruak ere modalitate aski ezberdinak dira eta hiruetan ongi moldatzen dela erakutsi du bere garaian Berritxako taldean hasi eta gaur egun Telcom taldearekin ari den lesakarrak. 500 metrokoan, geldirik

abiatzen dira txirrindulariak, abiadurako proban berriz, abiadazko irteera egin ondotik, 200 metro egiten dituzte norgehiagokan eta keirin modalitatean, azkenik, gehienez zortzinaka, txirrindulariek zortzi itzuli ematen dizkiote pistari, 5 eta erdi moto baten gibelean eta azkeneko bi terdiak motorik gabe, eta Iratik aipatu digunez, «bakoitzak bere taktika erabiltzen du gainerakoei irabazten saiatzeko».



UTZITAKO ARGAZKIA

Irati Otxoteko lanean eta podiumean.

uztailak 21-abuztuak 10

Informazioa bidaltzeko: info@ttipi.net edo 948 63 54 58**Erakusketak**

SENPERE | 2011.07.01/31

Agurtzane Anduetzaren arte aktiboa Larraldean

Bizia gure eskuetan izenburupean arte aktiboa eta Telp tailerra izanen da Amotzeko Larraldean. Estreinaldia uztailaren 30ean, 18:30ean.

Azokak

ARANO | 2011.07.23

Santiago artisau azoka zortzigarren aldiz ospatuko da

Azken urteotako ohiturari eutsiz Santiotako larunbatean artisau azoka eginen dute Aranon, herritarrek egindako produktuak erakutsiz eta salduz.

Jaialdiak

BERA-ETXALAR | 2011.07.22-24

Bidasoaldeko Gazteen Folklore Jaialdiko saioak

Irungo Eraiki dantza taldearekin batera, Mexikoko *Tonalli Ámbar*, Irlandako *Scoil Rince Mabhí* eta Indonesiako *Samp Al Ikhlas Jakarta* ariko dira.

BERA

San Esteban bestak

Abuztuaren 2tik 6ra. Xehetasunak 13. orrian.

BEINTZA-LABAIEN

Herriko bestak

Abuztuaren 5etik 9ra. Xehetasunak 40. orrian.

GAZTELU

Santo Domingo bestak

Abuztuaren 3tik 7ra. Xehetasunak 41. orrian.

ZIGA

San Lorentzo bestak

Abuztuaren 9tik 13ra. Xehetasunak 47. orrian.

LEITZA

San Tiburtzio bestak

Abuztuaren 6, 7 eta 10etik 15era. Xehetasunak 26. orrian.

SUNBILLA

San Tiburtzio bestak

Abuztuaren 10etik 14ra. Xehetasunak 25. orrian.

Kontzertuak

ARANTZA

Aterpen zuzenean

Uztailaren 29an Makala ariko da Aterpe ostatuan.
Abuztuaren 12an Keu taldea ariko da.
Abuztuaren 13an DJ Alai ariko da. Emanaldi guziak 23:00etan.

Dantzak

BERA

Bidasoaldeko Gazteen Folklore jaialdia

Uztailaren 22an Irlandako *Scoil Rince Mabhí* eta Indonesiako *Samp Al Ikhlas Jakarta* taldeak ariko dira 20:00etan Herriko Etxeko Plazan.

Erakusketak

ELIZONDO

Pintura erakusketa

Uztailaren 1etik abuztuaren 27 artio Martina Dasnoy-ren pintura erakusketa Arizkunenean. Arte eta Kultura egitarauaren barrenean.

Tomas Sobrinoren pintura erakusketa

Uztailaren 21etik abuztuaren 28 artio Tomas Sobrinoren pintura erakusketa Arizkunenean.

ARIZKUN

Margo erakusketa Santxotena parkean

Uztailaren 2tik abuztuaren 31ra Teresa Lafraguaren margo erakusketa Santxotena Parke-Museoan.

BERTIZ

Margo erakusketa

Uztailaren 15etik abuztuaren 28ra Javier Sueskunin pintura erakusketa Bertizko Jaurerriko jauregian. 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Cultur 2011 egitarauaren barnean.

SENPERE

Arte aktiboa eta Telp tailerra Larraldean

Uztailaren 1etik 31ra Agurtzane Anduetzaren *Bizia gure eskuetan* arte aktiboa eta Telp tailerra izanen da Amotzeko Larraldean. Asteazkenetik igandera, 16:00etatik 20:00etara. Estreinaldia uztailaren 30ean, 18:30ean.

IRURITA

Rafael Ubaniren lanak Olari jatetxean**Uztailaren 1etik iraila**

bitarte Rafael Ubani Villarealen margo erakusketa, ostatu ordutegian. Astelehenak itxita.

ETXALAR

Santiago Jorgeren lanak Kultur Etxean

Uztailaren 15etik 29ra Santiago Jorgeren margo erakusketa, astelehenetik larunbatera, 10:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 20:00etara. Igandetan 10:00etatik 13:00etara. Astelehen arratsaldez itxita.

Bestak

ARANO

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. Xehetasunak 546. alean.

ELGORRIAGA

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. Xehetasunak 546. alean.

ELIZONDO

Santiago bestak

Uztailaren 22tik 25era. 546. alean.

PROPOSAMENA

URDAZUBI

Burdinaren Eguna antolatu dute laugarren urtez

Bizkaitik txalupaz portuz portu Donibane Lohizunera, hortik Urdazuri errekan goiti Azkainera eta gero idi gurdietan ekarritako minerala Urdazubiko monastegiraino ailegatuko da abuztuaren 6an, duela mende batzuk ohikoa zen bidaia eginez. Monastegiko monjeek kalitatea aztertu eta urrezko txanponengatik trukatu dute. Egun osoan eskulangileen lanak ikusgai izanen dira, zikiro jatea eta bertzelako ospakizunak, laugarren edizio honetan.



ETXALAR

Bidasaldeko Gazteen Folklore jaialdia

Uztailaren 24an Mexikoko Tonalli Ámbar eta Indonesiako Samp Al Ikhlas Jakarta taldeak ariko dira 12:30ean plazan.

Lehiaketak

BAZTAN-BIDASOA

Boluntarioria eta elkartasunaz bideoak

Azaroaren 11 arte akituko da Bidelagun elkarteak *Bertzeen laruan jarri* izenburupean antolatutako bideo lehiaketan lanak aurkezteko epea. 14-18 urte arteko gazteei zuzendua.

Ikastaroak

BERA

Hip hop ikastaroa ikastolaren eskutik

Uztailaren 18tik uztailaren 22ra antolatu du Labiaga ikastolak, Berako udalaren laguntzarekin, LH6 eta DBHko ikasleei zuzendua. Kultur Etxean emanen da 11:00etatik 12:30era. Izen ematea uztailaren 12ra arte, 012an.

ELIZONDO

'Baztango paisaiak' helduentzako pintura ikastaroak

Abuztuaren 1etik 12ra eta abuztuaren 16tik 29ra emanen ditu Tomas Sobrinok, astelehenetik ortzirralera, 09:30etik 12:30era. Prezioa: 130 euro. 10 lagunendako tokia bakoitzean. Izen emateko epea zabalik Arizkunenean.

Ospakizunak

ELIZONDO

Herri kirol erakustaldia
Uztailaren 30ean

ENTRETENIMENDURAKO GAIAK

Liburua




Lehioen Dantza

FERNANDO MORILLO

Elkar, 2011

Denboraren eta espazioaren hesiak gaindituz, bidaia fantastikoak eginen dituzte liburuko pertsonai gazteek gizateriaren historiaren aldi eta leku ezberdinetara, ordenagailu eta kristalezko kubo baten laguntzaz. Lagunekin nahiz etsaiekin eginen dute topo euren bidaia liluragarrietan. Lehioen dantza Grezia: jolasa eta odola Kristo aurreko 480 urtean, Termopiletako gudan, Leonidas erregeak eta 300 espartarrek Xerxes persiarren armadari heriotzaraino aurre egin bazioten ere, greziarrei ezinezkoa izan zitzaizen garaitzea. Haien izaera askeari esker iritsi dira gugana greziar zibilizazioaren hainbat lorpen. Historiako pasarte erabakigarri horixe jaso du Fernando Morilloren eleberr honek. Gazte literatura, gazteek amesteko gaitasunari eusten diotelako, gatazka emozional eta fantasiakoak uztartuz.

Musika




Ultramarinos y coloniales

KEPA JUNKERA

2011

Bilboko Alde Zaharreko janari denda famatuaren omenezko lana egin nahi izan du Kepa Junkerak disko honetan. Euskal abesti tradizionalen trilogiarekin arrakasta handia lortu ostean, berak idatzitako 12 kantek osatzen dute lan berria. Bere ohiko taldearekin grabatu du eta euskal folka dute ardatz, doinu unibertsalekin nahastent bada ere. Auzoetako denda txikiak ditu abiapuntutzat, itsasoz bestaldeko produktuak saltzen zituzten dena zaharrak. Itsasoaz haraindikoak kolonietakoak dendetako jarduerarekin paralelismo bat eginez, betiko kalitateaz gain, lan honek musikari bilbotarraren proposamen desberdin bat.

Internet



Itsas kultura sarean

WWW.ALBAOLA.COM

Iraganetik etorkizunerantz nabigatzeko asmoz zabaldu dute Albaola elkarteak web orrialdea. Portu birtual bezala definitu dute sortzaileek. Euskal Herriko eta munduko itsas kulturari zabaldutako leihoa da, itsaso zale guztiei irekia. Sarean, itsasoaren maitaleek bertan aingura botatzea da helburua, iraganeko Euskal itsas ondareari lotutako hamaika eduki interesgarri topatuko ditu bertan sartzen denak. Itsasoko ondare materiala eta inmateriala ikertzea, berreskuratzea eta gizarteratzea dute helburu sortzaileek. Baita izen bereko elkartearen jardunaren berri zabaldu ere. Lau atal nagusi ditu: Ingurugiroa, formazioa, giza baloreak eta elkarlana. Horrez gain bloga ere zabaldu dute, Itsasotik Begira izenekoa. Albaola elkartearen ekimene berri zabaltzeaz gain, itsasoko albisteak, erreportajeak eta elkarrizketak argitaratuko dituzte.

Nafarroako Herri Kirol Federazioaren eskutik erakustaldia Merkatuko Plazan 19:30ean. Cultur 2011 programaren barnean.

ETXALAR

Altxata elkartearen 20. urteurrena

Uztailaren 31n Altxata kultur elkartearen 20. urteurrena ospatuko da. Pello Apezteari omenaldia eginen zaio, herri bazkaria eta arratsaldez, Etxalarko I. Herri Argazki Lehiaketa.

URDAZUBI

Burdinaren Eguna

Abuztuaren 6an ospatuko da laugarren aldiz, Udalak eta Bertizko Turismo Partzuergoak antolatua.

Azokak

ARANO

VIII. Artisau Azoka

Uztailaren 23an herritarrek egindako produktuen azoka izanen da. Patata tortilla lehiaketa ere eginen da.

Zinema

ELIZONDO

Udako zinema zikloa

Abuztuaren 1ean *Piratas del Caribe 4. En mareas misteriosas* filma ikusgai. 7 urtetik goitikoendako. **Abuztuaren 8an** *Arthur eta munduen gerra* filma ikusgai euskaraz. 7 urtetik goitikoendako. Emanaldi guziak 22:00etan Merkatuko Plazan, Arte eta Kultura egitarauaren barnean.

Gertaera guztiak ikusteko, begiratu: **www.ttipi.net** (agenda)

ETXEBIZITZAK
salgai

ERATSUN. 3 borda salgai, lur eremuarekin. ☎943 217817.

DONEZTEBE. Pisua salgai. Sukaldea, komuna, 2 logela, egongela handia eta despentsa. 15 m²ko trastelekua. ☎630 160353.

ANZABAL
INMOBILIARIA**BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA eta IPARRALDEAN**

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

IPARRALDE eta BIDASOA alderdian

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

ZUGARRAMURDI

- Baserria salgai 80.000 metro²ko lur eremuarekin.
- Etxe adosatua bere lurra-
rekin salgai.

Tel. 948 580 804
Faxa. 948 581 459
anzabal@anzabal.com

ETXEBIZITZAK
errentan emateko

DONEZTEBE. Pisua errentan eman nahi da. Mobleztatua eta kalefazioarekin. ☎628 045374.

BERA. Eztegarra pasealekuan pisua errentan emateko. Sukaldea, komuna, egongela eta 3 logela. ☎697 440590 - 948 631143.

GARAJEAK/LOKALAK
errentan emateko

LESKA. Plaza Berria karrikan bulegoa errentan emateko. Lanerako prest. Zuk zenbat ordain dezakezu? ☎948 630287.

DONEZTEBE. Aparan inguruan 75 m²ko pabiloia errentan emateko. Argia eta urarekin. ☎659 613240.

MERKATU TTIKIA

948 63 54 58

info@ttipi.net edo www.ttipi.net

SAIL HONETAN IRAGARKIA JARTZEKO 8€ ORDAINDU BEHAR DA
ARGAZKIAREKIN JARRI NAHI IZANEZ GERO 10€

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta
TELEBISTA eta INTERNETen hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako 3008 0080 56 0703304329 kontuan

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz
sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik

GARAJEAK/LOKALAK
traspasatzeko

LEITZA. Gaztañaga taberna traspasatzeko. Modu onean. ☎699 361 194.

LANA
eskaintzak

BERA. Emakumea behar da ostatu batean sukaldari laguntzaile aritzeko. ☎948 630259.

Biltegiko arduradun bezala lan egiteko administratzailea behar da. Euskara eta informatika jakitea beharrezkoa da. Frantsesa ere baloratuko da. Kurrikuluma bidali:almacenerobaztan@hotmail.com.

Inkestatzaileak behar dira. ☎699 382673.

ETXALAR. Emakume bat behar da abuztuko hilabetean arratsaldetan lau

orduz eta igande goizean 3 orduz zaintze lanak egiteko. ☎617 740269.

LANA
eskariak

Gizonezko bat edozein lanetan ariko litzateke. ☎618 628276.

Gizonezko bat edozein lanetan aritzeko prest dago. Esperientziaduna. ☎610 956130.

Neska gazte euskaldun bat edozein lanetan ariko litzateke: etxeak garbitzen, adinekoak eta umeak zaintzen... ☎695 716894.

Arratsaldean eta asteburuetan **emakume batek** lan eginen luke etxeko lanetan edo adinekoak zaintzen. ☎639 080811.

Emakume batek adinekoak zainduko litzuke in-

terna moduan. ☎678 397046.

ZERBITZUAK
denetarik**MOTORRAK**
tailerrak

MENDAUR MOTOR
948 450333 • DONEZTEBE

SUZUKI
(gasolina eta diesela)
MITSUBISHI
(luze eta laburrak)
TURISMOAK

MOTORRA
salerosketak

Toyota Land Cruiser 3 atekoa salgai, 2005. urtekoa, 155.000 kilometroarekin. Extra guztiak dauka, hagitz elegantea. ☎670 303520.



Renault Kangoo 1.5 dci autoa salgai. Diesela, 2002. urtekoa. 5 plaza-koa. Egoera oso onean. 3.500 eurotan. ☎647 525516.

**ANIMALIAK**
oparitzeko

Zakurkumeak oparitzeko. Pastor aleman nahasketa. ☎635 744732.

3 hilabeteko txakurkume emea oparitzeko. Ama setterra eta atxa spaniel arrazakoa. ☎678 024636.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA
(ekainaren 17tik 24ra bitarteko prezioak)



Zerrikumea
(19 kilo): 28,00 € (+2,00)

Zerri gizena
1,270 € kilo. (=)

Zerramak:
0,420€ Kg/bizirik. (=)



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 4,13 (=)

1.koa 3,74 (=)

2.koa 3,50 (=)

Urruxak: €/kg. Kanal

Extra 4,12 (=)

1.koa 3,84 (=)

2.koa 3,70 (=)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 120,00 (=)
idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak:

urruxak 110,00 (=)

idixkoak 130,00 (=)

Zaldikoak: €/k

Sortuberrak: 2,85/2,95

Zaldi-behorrak: 1,75/1,95


Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 6,20/6,90

8-10 kilokoak: 5,30/5,60

**ANIMALIAK
salgai**

Hispano-arabe con media carta 2002ko behorra salgai. Jatorri arabiar-polakoa (MAKHSAM). Etxean jaio eta hezitakoa. Jarrera oso onekoa eta behargile gogotsua. Ez du inolako arazorik. Perurratua. Bakunatua eta desparasitua. Prezio in-terresgarria. ☎679 236689.



AUZA (Ultzama): Behor-rrak eta moxalak salgai. **PRE.** Neurri ona eta mugimendu ederrak. Adin eta prezio desberdinetakoak. Gauez deitu. ☎948 305149.

**DENETARIK
galdu/aurkituak**

BERA. Toki Ona institutuaren inguruan betaurreko graduatuak galdu dira, funda beltz baten barrenean daude. Sari-tuko da. ☎650 386523/948 625000.

**DENETARIK
salerosketak**

IRUN. Taxi lizentzia salgai. ☎619 345729.

STIHL motozerra salgai, 070 modelo 300 euro-tan. ☎620 076102 (Jose Luis).



Belar idor bolak salgai. ☎660 393436.

Kalefakziorako gasolio depositoa salgai. 1.000 litrokoa eta homologatua. ☎948 464183.



SANTESTEBAN Tailerrak

MEZIANE GRAND TOUR 1.600 CV 20.000 km - 2007koa	MEZIANE BLUVA 1.600 CV 18.000 km - 2007koa	SEZURI UTARRA 1.600 CV 127.000 km - 2007koa
--	---	--

ETA BAINERA
Guztira 1000 Eurotik 1500 Euro bitartekoak.
Bikotek 2000 Eurotik 3000 Euro bitartekoak.
Bikotek 18 Eurotik 1.600 Euro bitartekoak.
Bikotek 18 Eurotik 1.600 Euro bitartekoak.

ADIBIDEAK:
1.600 CV
20.000 km - 2007koa

DONETZERENK RENALULT-ek KOTXE SA BIKOTETAN SEKULAKO ERKANTZAK

**ttipi-ttapa
Merkatu ttikia**

8€

Tel: 948 635 458
www.ttipi.net

TTIPI-TTAPAK ZURE LAGUNTZA BEHAR DU

Zure laguntza eskertzeko
DOKUMENTU-POLTSA
bat izanen duzu opari

gure bezeroek aukeratuak diren proiektu zenbakia **15.996**

Boligrafo, identifikazio txartela eta mugikorrerako konpartimentuak


ttipi-ttapa

Eska ezazu TTIPI-TTAPAren proiektua aukeratu izanaren frogagria Nafarroako Kutzaren zure bulegoan eta ekar ezazu TTIPI-TTAPAra abenduaren 30a baino lehen.


urtebetetzeak

Argazki soila: 4€; bikoitza: 8€


Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,35€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa; 4) www.ttipi.net bitartez



Zubietako **IKER LOIARTE OTXANDORENAK** uztailaren 21ean urteak beteko ditu. Auniz urtez Naroa, Garazi, Uxue eta Ekaitzaren partetik.




AITZOL SAN SEBASTIAN ARRAIZA lakuntzarrak 2 urte beteko ditu uztailaren 27an. Zorionak eta musu handi bat familia guztiaren partetik.




Sunbillako **ANE MIGELTORENA MUGIKAK** urteak beteko ditu uztailaren 10ean. Zorionak baserriko familiaren eta berexiki bi amatxien partetik. Prestatu afaria!!! Muxu potolo potoloa printzesa!!!



Sunbillako **ANE MIGELTORENA MUGIKAK** urteak beteko ditu uztailaren 10ean. Zorionak etxeko partetik, ama, atxa eta Aimar. Mui!




Igantziako **ALAINE BAZTERRIKA ANT XORDOKIK** 2 urte beteko ditu uztailaren 22an. Zorionak eta muxuak. Sunbilla eta Igantziako familia.




Bartzelonako **LUIS ARRETXEAA ALONSOK** 2 urte bete ditu uztailaren 17an. Zorionak eta musu handi bat etxeko guztien partetik.



ZORIONAK EZKONBERRIE!!! Ongi pasatu halako bidai puskan eta Labaingo bestako gozogor etorri lagunen partez.



Lesakako **UNAI ARANGUREN MUTUBERRIAK** 2 urte beteko ditu abuztuaren 1ean. Osabazteba eta amatxi M^a Jesusen partez mila muxo.



Arantzako **EIDER TABERNA MUTUBERRIAK** 8 urte beteko ditu uztailaren 30ean. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bat. Auniz urtez!!!



LEIRE MANTEROLA **URROZEK** 10 urte bete ditu uztailaren 13an. Zorionak atxa, ama, Alodi, amatxi eta izeba Asunen partetik.



Zubietako **ENDIKA eta KARMELE SANTESTEBAN BENDOIRO** anai-arrebek uztailaren 1 eta 13an, 5 eta 12 urte bete dituztelako zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki, aita, ama eta Julenen partetik.




AIRTEK uztailaren 1ean 8 urte, aitaxi **JOXE LUISEK** uztailaren 8an eta **ALAZNE eta NAROKA** uztailaren 21ean 5 urte beteko dituzte. Auniz urtez baserriko familiaren partetik!



Auniz urtez potxola! Ailegatu da zure eguna! Hagitz ongi pasa eta ea berendu goxo batera gonbidatzen gaituzun. Kaxkarrak.




ENARA IRURIETA beratarrek urteak beteko ditu abuztuaren 20an. Zorionak etxeko partetik.



MALEN ETXEKOLONEA URRIZA Gure Malen maitiak, 6 urte bete ditu aitaok eta amatxok ein te zoriondu Beñat bateriakin, Mikele trikikin amatxi eta amonak firiri kantari. Zorionak bihurritxo, mila muxu hartu ta opari polit hоек gurekin banatu. Doinua: Maritxu nora zoaz.



ENAUT OTEIZA LARRE elizondarrak urte 1 bete du uztailaren 7an. Zorionak eta muxu handi bat zure familiaren partetik.



Zubietako **EGOI FAGOGAK** 2 urte beteko ditu abuztuaren 11n. Zorionak familia guztiaren partetik.



Lesakako **GARAZI ETXEPARE ALEMANEK** urte bat bete du uztailaren 15ean. Muxu bat aita, ama eta famili osoaren partetik. Zorionak sorgintxo.



Arantzako **KATTIN eta EKAI MADARIAGA APAOLAZAK** urteak beteko dituzte abuztuaren 6 eta 19an. Zorionak eta auniz urtez familia guztiaren partetik. Muxu haundi bana.



Zubietako **AIMAR eta ENEKO IRIBARRENEK** 7 eta 1 urte beteko dituzte abuztuaren 3an eta uztailaren 27an. Zorionak familia guztiaren partetik gure etxeko bi gizontxoei eta muxu haundi bat aitaxi, amatxo eta Mirariren partetik.



EGOI FAGOGAK 2 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Auriztik eta berendu goxo prestatu.




Lesakako **MAITANE eta ADUR ERKIZIA ARBURUAK** 4 urte eta urtea bete dituzte uztailaren 4ean eta ekainaren 30ean. Lesakako eta Igantziako familiaren partetik zorionak.



ENAIZ AGUDO SANZ olaztiarrak urtea beteko du uztailaren 24an. Zorionak gure irribarre zuri. Leitzako aitaxi amatxi, izeba eta lehengusua.



Olaztikoko **ENAIZ AGUDO SANZ**ek urtea beteko du uztailaren 24ean. Zorionak gure mutikotxori aita, amatxo eta bere arrebatxo Kiararen partetik.



Lesakako **URKO OLAIZOLA MENDEGIAK** 3 urte beteko ditu uztailaren 18an. Auniz urtez familia osoaren partetik. Aupa ezpatadantzari!

mundu guziak ikusteko!
100 KARTEL AS KOLORETAN 83 €
250 KARTEL AS KOLORETAN 114 €

ZURE HERTIKO
UZTILAREN 20K 62€

IBARDINGO GAINA - BERA

Biok



Besta zoriontsuak
opa dizkizuegu!



Mirentxu



Venta **BIOK**



Boutique **BIOK**

Mirentxu



**GIZABIDEZKO
JAI
ZORIONTSUAK**

can^{x+}

BANCA CIVICA